

# GARAPENERAKO LANKIDETZAREN

## III. GIDA PLANA



Vitoria-Gasteiz, 2015

**Aurkibide orokorra**TOC

## Taula eta grafikoen aurkibidea

1. taula: Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako 2008-2013 aldirako aurrekontua.....	21
2. taula: Eusko Jaurlaritzaren 2008-2013 aldirako guztizko aurrekontuen urteko aldakuntza.....	28
3. taula: 2008-2011 aldirako planean lehenetsitako 22 herrialdeak eta horien sailkapena 2012an...	30
4. taula: 2008-2013 aldian funts gehien jaso duten 30 eragileen zerrenda.....	35
5. taula: Oinarrizko printzipio gidariak.....	40
6. taula: Operazioko printzipio gidariak.....	41
7. taula: Eskubide unibertsalak, zatiezintasuna eta egituraz ahul diren kolektiboen eskubideei arreta berezia eskaintzea.....	50
8. taula: Gobernamendu demokratikoa eta tokiko boterea: gaitasun kolektiboak eta parte-hartzea erabakiak hartzeko garaian.....	52
9. taula: Tokiko garapen ekonomikoa: elikadura-burujabetza sustatzen duten ordezkoko garapen iraunkorreko ereduetan oinarritzen diren ekonomia- eta produkzio-ahalmenen hobekuntza sustatzea.....	53
10. taula: Ingurumen-babesa eta -kontserbazioa: ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea.....	55
11. taula: Emakumeak ahalduntzea: emakumeek baliabideak eta erabakiak hartzeko prozesuak eskura izan eta kontrola ditzaten sustatzea.....	56
12. taula: 2014-2017 aldirako lehenetsitako herrialdeak.....	58
13. taula: 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren ikuspegia, printzipioak eta lehentasunak.....	68

14. taula: 2014-2017 aldirako aurrekontu-konpromisoak.....	79
15. taula: Tresnak eta bana daitezkeen funtsak.....	80
1. grafikoa: 2008-2013 aldian banatutako funtsak lankidetzaren arabera.	29
2. grafikoa: 2008-2013 aldian banatutako funtsak eremu geografikoaren arabera .....	31
3. grafikoa: 2008-2013 aldian banatutako funtsak sektorearen arabera.....	32
4. grafikoa: 2008-2013 aldirako zuzeneko lankidetzaren bilakaera, urteko banatutako guztizko funtsen gaineko portzentaje moduan.....	36
5. grafikoa: Garapenerako euskal lankidetzaren ikuspegia.....	39

## Siglak eta akronimoak

UNHCR	Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandataria
IGE	Ikasleen guraso elkarte
GLO	Garapenerako laguntza ofiziala
GLEA	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
GEB	Gazteak espezializatzeko bekak
BRICS	Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika
GLB	Garapenean Laguntzeko Batzordea
EKPB	Produktuen eta/edo zerbitzuen erosketa eta kontratazio publiko berdea
CEDAW	Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmena (ingelesezko siglak)
GLEB	Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea
GLEK	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua
EHE	Ekintza humanitarioko esparru-estrategien finantzazio-ildo
GEH	Gizarte-eraldaketarako hezkuntza
ALF	Arabako Larrialdietarako Funtza
GBA	Genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako prozesuetarako laguntzak
GIG	Genero ikuspegia garapenean
EJ	Eusko Jaurlaritza
GDI	Genero desberdintasunaren indizea
GGI	Giza garapenaren indizea
GGI-D	Desberdintasunaren arabera doitutako giza garapenaren indizea
INEE	Larrialdi-egoerentarako hezkuntzarako nazioarteko sarea (ingelesezko siglak)
EGL	Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa
KOP	Hegoaldeko herrialdeetako eragileak eta erakundeak instituzionalki indartzeko Euskadiko lankideentzako laguntzak

LGTTBI	Lesbianen, gayen, transexualen, transgeneroen, bisexualen eta intersexualen kolektiboa
NBEB	Nazio Batuen erakundeek hegoaldeko herrialdeetan dituzten bulegoetako gazte lankideak trebatzeko bekak
NBE	Nazio Batuen Erakundea
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
MGH	Milurtekoaren garapen helburuak
GJH	Garapen jasangarriko helburuak
LNE	Lanaren Nazioarteko Erakundea
GKE	Gobernuz kanpoko erakundea
GGKE	Garapenerako gobernuz kanpoko erakundea
LUG	Lau urteko gida-plana
GPL	Garapen programetarako laguntzak
NBGP	Nazio Batuen Garapenerako Programa
PRE	Larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako laguntzen finantziazio-lerro iraunkorra.
PRO K1	Garapenerako lankidetzeta-proiektuetarako laguntzak
PRO K2	Produkzio-garapenerako eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak
PRO K1	Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak
REDD	Baso-soiltzeak eta degradazioak eragindako karbono isurpenak txikitzeko programa
SAR	Garapenerako lankidetzaren Ignacio Ellacuría saria
IKT	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
ZUZ	Zuzeneko lankidetzako hitzarmenak

## Aurkezpena

Euskadiko erakunde publikoek 25 urte baino gehiago eman dituzte garapenerako lankidetzan. Urte hauetan guztietan, deszentralizatutako lankidetzaren ereduak sortu dute, eta Euskadiko gizarteak nazioarteko elkartasunarekin hartu duen konpromisoa islatzen du.

Euskadiko lankidetzaren ibilbidea emankorra eta positiboa izan da. Nabarmentzekoa da eragile publikoen eta sozialen (GGKEak bereziki) arteko harreman estua eta elkarlana eta hegoaldeko herrietako erakundeen eta komunitateen funtsezko zeregina.

Eusko Jaurlaritzak badaki zer garrantzitsua den Euskadiko lankidetzaren ereduak nabarmentzea eta indartzea. Egun, aldaketak dira nagusi, eta Eusko Jaurlaritzak eta eragile nagusiek uste dute gure herrialdearen lankidetzaren ereduak berrikusi behar dela.

Euskadiko lankidetzaren potentzial handia du eta, horregatik, gure erronkarik handiena izango da eragile guztiek **adostutako ikuspegiak sortzea**, Euskadiko lankidetzaren balio erantsiari eta berezitasunari buruz.

Plan honen onarpenak X. Legegintzaldirako Gobernu Programan garapenerako lankidetzaren arloan hartutako konpromisoetako bat betetzen du. Plana abian jarri gero, lankidetzaren kalitatea eta eragina hobetu ahalgo ditugu hurrengo hauen bitartez: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren garrantzia nabarmentzea; politiken koherentzia bermatzeko gobernuaren konpromiso globala; erakundeen arteko koordinazioa Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordean; elkarte-sarea indartzea eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren bidez lankidetzaren politikan parte-hartzea; eta Europar Batasunarekin eta nazioarteko agentziekin eta erakundeekin batera jardutea ekimen berrien eta estrategien bidez.

Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren bidez, garapenerako lankidetzaren aldeko apustua berritu du Eusko Jaurlaritzak, ulertuta lankidetzaren hori politika publiko parte-hartzailea, koherentea eta ibilbide luzekoa dela, eta munduko egiturazko pobrezia eta desorekaren aurkako borroka hartutako konpromiso etiko eta politikoa indartzen duela.

**Iñigo Urkullu**

Lehendakaria

## Sarrera

Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako III. Gida Plana euskal lankidetzaren eragile nagusien –publiko zein sozialen– arteko lan, eztabaida eta adostasunen prozesu garrantzitsu baten emaitza da.

**Lehenik**, lau urteko gida-plan honek Eusko Legebiltzarrak 2014ko apirilean Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen bidez onartu zituen *Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017ko Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Nagusiak* garatzen ditu.

Illo horretatik, komenigarria da azpimarratzea, Euskadin herritarrak ordezkatzeko dituen Eusko Legebiltzarrak ezarri duela garapenerako lankidetzako politikak betearazteko errespetatu behar duen marko filosofiko eta ideologikoa, lege maila duten hainbat arauen bidez: 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzarena; 14/2007 Legea, abenduaren 28koa, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena; eta, azkenik, 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena. Arau horiek garapenerako-lankidetzaren alderdiak eta oinarrizko eskumenak identifikatzen dituzte. Arau horiek zehazten dute, halaber, orientazio orokorrak Eusko Legebiltzarrak onartu behar dituela.

**Bigarrenik**, beharrezkoa da gogoratzea arau horiek euskal gizarteak hartutako gizarte-konpromiso batetik jaiotako eskari kolektibo baten ondorioz sortu zirela, batik bat GGKE eta elkartasun-mugimenduen lanaren bidez.

Legebiltzarrak onartutako konpromiso eta bultzada horrek erantzukizun handiko toki batean jarri ditu erakunde horiek, arloko gobernu-politiken diseinuan eta gauzatzean zuzenean eragiteko gaitasunari dagokionez, besteak beste Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte-hartze paritarioa eginik eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Kontseilu Errektorean sartuta.

Gizarte zibilean ehun asoziatibo zabal eta anitza dago esparru horretan, eta horien bidez garatzen eta gauzatzen dira lankidetzaren tresna gehienak; horixe da, hain zuzen, garapenerako lankidetzaren ezaugarrietako bat. Bultzada, konpromisoa, aintzatespena eta erantzukizuna gizarte zibilak politika horiek zuzentzean eta gauzatzean duen harreman estua definitzen duten kontzeptuak dira, eta haren indargune ukaezinetako bat.

Horregatik, araudiak aurreikusten duen bezala eta aurreko ibilbidearekin bat etorruta, gizarte zibileko erakundeek zeregin garrantzitsua izan dute Garapenerako Euskal Lankidetzaren

2014-2017 aldirako III. Gida Plan hau prestatzean, bereziki Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan, entitate publikoen gainerako ordezkariekin batera.

Era berean, prozesuaren azken etapan, herritarrek banaka edo taldean planaren zirriborroari buruzko ekarpenak egiteko edo iritziak emateko ekimena antolatu zen.

**Hirugarrenik**, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta 2011n abian jartzeak aukera ematen du euskal lankidetzaz zehazteko eta finkatzeko, eta instituzionalizatzeko. Gizatalde kalifikatu eta eskarmentudun bat hornitzeak geroko politiken egonkortasuna eta lurreratzea errazten du, ahaleginak jarduketan kalitate handiago batera eta haien eraginaren ezagutza handiago batera birbideratzen dituzten tresna batzuen bidez.

**Laugarrenik**, Garapenerako Lankidetzaren 2008-2011 aldirako Lau Urteko II. Gida Plana 2011n aztertu zuten, funtsean Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan egindako partaidetzazko ebaluazio baten bidez. Ebaluazio hori erreferentzia garrantzitsua izan da 2014-2017 aldirako III. Gida Plan honetarako.

**Bosgarrenik**, *Eusko Jaurlaritzaren Basque Country Estrategiak*, 2020ko bere denboramugan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eskaintzen duen lankidetzaren deszentralizatuaren eredu propioa elementu garrantzitsu gisa identifikatzen du Euskadiren nazioarteko proiektiorako, “euskal gizartearen elkartasun indibidual, kolektibo eta instituzionala transmititzeko, munduan egiturazko pobrezia eraztearen eta desberdintasuna ezabatzearen alde”<sup>1</sup>. Halaber, euskal lankidetzak ezagueretan eta harremanetan intentsiboa izan nahi duela azpimarratzen du, ikaskuntzara eta bere esperientziak modu aktiboan konpartitzera irekia. Haatik, onartzen du, 1/2007 Legeak, Garapenerako Lankidetzari buruzkoak, ezartzen duen bezala, nazioarteko elkartasunaren esparruko ekintzak lau urteko gida-plan honek zuzenduko dituela.

**Eta azkenik**, euskal lankidetzaren egungo erronka guztiei erantzuna eman eta hura finkatzeko behar diren hobekuntzak egin nahi dira. 2014-2017 aldirako III. Gida Plan honen helburu nagusia da euskal lankidetzaren eredu berriz pentsatzea eta eguneratzea, bere ezaugarri espezifikoak, euskal lankidetzaren eragile guztien zereginak eta jarduteko era eta espazio garrantzitsuenak adostuta.

Munduaren egungo egoera, batez ere joerak, aintzat hartuz egokitzeko beharra onartzen du, bere berezitasunetik eta identitatetik eta ikuspegi kritiko batekin.

2014-2017 aldirako III. Gida Plan hau trantsizioko plan bat dela esan dezakegu: batetik, gogoeta egiten da jakiteko zein izango den euskal lankidetzaren balio erantsia eta hurrengo lau urteko gida-planerako oinarri izango diren lankidetzaren tresnak aztertzen dira; eta bestetik,

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritza (2014): *2020 Nazioartekotze Esparru Estrategia: Estrategia Basque Country*, 40. or.

gogoeta horretan aurrera egin ahala, eutsi egiten zaie oraindik aurreko gida-planaren ikuspegiei eta irizpideei.

*Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017ko Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Nagusietan* azpimarratzen denez, “garapenerako lankidetzak herriarentzat eta bere herritarrentzat politika publiko koherente, koordinatu eta balio-kalitatezko gisa finkatu nahi du, egiturazko pobrezia eraztearekin, gizarte-eraldaketarekin eta giza garapen iraunkorrarekin konprometitu. Izan ere, dimentsio hauengatik nabarmendu nahi du:

- a) Solidarioa izan behar du.
- b) Partaidetzakoa eta euskal gizarteak bultzatua: egungo aktore aktiboekin batera, beste gizarte-sektore batzuk ere gehituta, beren ezaguera eta ikaskuntza metatu eta guzti.
- c) Intentsiboa ezaguera eta loturetan: gizarteak harremanetan jarriz, gaitasunak eta lankidetzaren teknika bi noranzkotan indartuta.
- d) Ikaskuntzara bideratua: ikerketa, berrikuntza, ebaluazioa eta komunikazioa sustatuta.

Egungo egoera ez da oso ona garapenerako lankidetzarako eta, zehatzago, lankidetzaren deszentralizaturako. Horregatik, ahalik eta adostuena den politika argi eta errealista bat izatea beharrezkoa da. Horregatik, ahalegina egin da diseinatutako plana arina eta eraginkorra, eragile, tokiko beren bazkide eta erakunde aliatu guztientzat ulergarria, bere jardunerako eta jarraipenerako erabilgarria dena izateko.

Dokumentu honek plangintzaren elementu garrantzitsuenak jasotzen ditu, zazpi kapitulutan antolatuta. **Lehen kapituluan**, lankidetzaren deszentralizaturako oro har, eta euskal lankidetzaren berriaz, nazioarteko zer esparru eta testuingurutan kokatu behar den ezarri da. Testuinguru horrek eta egungo garapen-agendak erronka eta eskari berriak markatzen dituzte.

**Bigarren kapituluan**, aurrera egiten da euskal lankidetzaren ereduak finkatzen, gure lankidetzaren indarguneak eta abian jarri beharreko hobekuntzak erakusten dizkigun argazki panoramiko baten bidez. Atal horrek aurreko aldiko ebaluazio-prozesuaren eta 2011an eta 2012an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan egindako diagnosiaren ondoriozko ondorioak biltzen ditu.

**Hirugarren kapituluak** euskal lankidetzaren politikaren ikuspegia aurkezten du, oinarritzat hartuta giza garapen iraunkorra eta Euskadiko lankidetzaren jarduketaren guztiak zer printzipio zuzentzailetan kokatu behar diren. Gainera, lankidetzaren, ekintza humanitarioko eta gizartearen eraldatzeko hezkuntzaren jarduketaren guztien zeharkako ikuspegi komunak ezarri dira. Garapenerako lankidetzaren ardatzerako, lehentasun sektorialak eta plan honen jarduketaren lehentasun geografikoak ezarri dira. Gainera, atal bereziak ditu ekintza humanitarioetarako

eta gizartea eraldatzeko hezkuntzako ekintzetarako, eta plan honek iraun bitartean garatuko dira estrategia-agiri berezien bidez.

**Laugarren kapituluak** datozen lau urteetarako plangintzaren muina jasotzen du, euskal lankidetzaren kalitatearen hobekuntza azpimarratuta, gizarte-erlaketako jarduketetan eta egiturazko pobrezia erazteko ahaleginean eragin handiagoa lortzeko. Funtsezko lau jarduketa-ildo ezarri dira: (i) euskal lankidetzaren eredua berriz pentsatzea eta eguneratzea; (ii) ebaluazio-kultura sustatzea; (iii) garapenerako lankidetz-politika diseinatzeko eta kudeatzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea; eta (iv) lankidetz-politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetuagoa izatea.

Aldi honen beste alderdi garrantzitsu bat, **bosgarren kapituluan** jasotakoa, euskal lankidetz-eragile nagusien gaitasunak indartzen laguntzea izango da. Horretarako, hauxe planteatzen da: (i) Eragileen Erregistroa garatzea; (ii) gizarte zibileko erakundeei lehentasunezko eragile gisa laguntzea; (iii) ordezkaritza- eta koordinazio-espazioak indartzea; (iv) garapenerako politiken koherentziaren alde egitea; eta (v) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea.

**Seigarren kapituluan** oraingo tresnak berrikusteko beharra ezartzen du, analisisen, azterlanen, ebaluazioen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eztabaidaren bidez. Era berean, kapitulu berean zehaztu dira aurrekontu-konpromisoak, ekintza positiboen zerrenda bat eta esku-hartze modalitate bakoitzerako aurreikusitako mailak.

Dokumentu hau **zazpigarren kapituluak** ixten du, lankidetz-politikarako funtsezko atal batekin: hartutako ebaluazio-ikuspegia eta hura garatzeko eta bultzatzeko behar diren mekanismoak, bai diseinuaren ebaluazioaren mailan, bai haren ezarpenean.

Azkenik, **eranskinean**, Plangintza eta Jarraipen Ardatza bildu da, eta, bertan, lortu nahi diren helburuak eta haiei dagozkien emaitzak, ekintzak eta adierazleak.

## I. MUNDUKO PANORAMA ETA GARAPENAREN AGENDA

### I.1. Munduko egungo panorama

Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 aldirako Gida Plana nazioarteko koiuntura konplexu baten erdian ari da prestatzen eta abian jartzen. Horrek erronka berriak planteatzen ditu eta zenbait gogoeta sortzen ditu garapenerako lankidetzak orokorrean eta lankidetzaz deszentralizatuak bereziki izan behar duten zereginari buruz.

Nazioartean aldaketa nabarmenak egin dituzte. 2000. urtean, *Milurteko Adierazpena* sinatu zenean, nazioarteko egoera nahiko egonkorra zen. Herrialde, eskualde eta talde batzuei dagokienez, goraldi ekonomikoa eta soziala ere aipa daiteke. Orduz geroztik, krisialdia zabaldu da eta munduak erronka zailagoei egin behar die aurre. Krisialdia hainbat arlotan eman da (ekonomiko-finantzarioan, klima, elikagaiak, etab.), eta ez die pertsona guztiei berdin eragiten. Hala ere, krisialdiak alternatibak aurkitzeko aukerak ere eragin ditu.

Pobreziaren aurkako borrokan aurrerapen garrantzitsuak egin dira –bereziki pobrezia-poltsa handienak zituzten herrialdeetan muturreko pobrezia eta gosea murriztean–, baina aurrerapen horiek mugatuta daude, nagusi delako hazkunde ekonomiko iraunkor eta indibidualista batean oinarritutako garapen-eredu bat, herrialdeen barnean desberdintasunak sortzen dituen, bai lurralde-mailan, bai kolektiboen artean.

Azken hamarkadetan zehar, sistema kapitalistak bere muga eta kontraesanekin egin du topo, eta kolokan jarri du bere egokitasuna eta iraunkortasuna. Krisi ekonomiko eta finantzarioak, elikagaien krisiak, klima-aldaketak, baliabide naturalak kontrolatzeko borrokak eta gizarte-desberdintasunen gehikuntzak, besteak beste, indarrean den garapen-eredua une kritikoa igarotzen ari dela adierazten dute.

Krisi globalak gogor jo du garapena. Azken urteetan ongizate-estatua uzurtu egin da gizarte-ongizatean aurrerapen handienak zituzten herrialdeetan. Aldi berean, arriskua handitzen ari da porrot-egoeran edo larrialdi-egoeran bizi diren pertsonentzat, beren erakunde ezegonkortasunagatik eta horiek herritarrei bizitza duina bermatzeko duten ezintasunagatik. Milurteko Garapeneko Helburuen (MGH) euritakoaren azpian elkartutako ekintzek ezin izan dituzte zuzendu joera horiek, eta ez dute ekidin horiek dakarten giza eskubideen urratzea.

Munduko eskualde batzuen ezegonkortasun politikoak, baliabide naturalen inguruko borrokak, fundamentalismo erlijiosoek, beste elementu ugariaren artean, gatazka armatu berriak sorrarazi dituzte eta ez dute konpondu beste horrenbesteren kronikotasuna. Eskualde horietan bizi direnen ondorioak, giza garapenari dagokionez, ikaragarrikoak dira, eta horrelakoak dira giza eskubideen urradurak eta pertsona errefuxiatu eta lekualdatuen ahultasun-egoera.

Uraren eta klima-aldaketaren krisia bi gai garrantzitsu dira, kolokan jartzen dutenak bere ondasun amaikor eta mugatuen mende dagoen kontrolik gabeko hazkunde batean oinarritutako garapen-ereduaren iraunkortasuna. Lurren eta haren ondasunen kontrola elementu garrantzitsu bat da nagusi den garapen-ereduarentzat. Bizirauteko eta ongi bizitzeko baliabideak kolokan ikusten dituztenek ondasun komunen pribatizazioari aurre egiten diote. Horrela, ezinbesteko elementu gisa energia-baliabideak eskuratzearekin, biodibertsitatearen edo uraren kontrolarekin eta monopolizazioarekin lotutako gatazka kopurua gehitu egin da.

Klima-aldaketaren jatorria ingurumenean oinarritutako aurrerabide-bilaketan dago. Horren ondorio suntsitzaileak gero eta ohikoagoak dira: tenperaturen igoera, lehortekak, basamortutzea, urakanak, etab. Izatez, klima-aldaketa XXI. mendeko gizateriaren erronka handienetako bat da. Herrialdeentzat erantzukizun konpartitu eta bereziak eskatzen dituen

arazo bat da, eta sistema korporatibo globalak erantzukizun garrantzitsua du hor. Azken hamarkadetan egindako goi-bilera eta foroetan agerian geratu denez, konpromiso irmo bat behar da, berotze globalaren aurkako eta karbono dioxidoaren isurtzeak murriztearen aldeko ekintza eraginkorrek abian jarrita.

Ingurumeneko arazoen larriagotzeari aurre egiteko gobernu eta enpresen artean indarra hartu duen proposamenetako bat kapitalismo berdearena da. Kapitala ingurumen-koiunturara egokitzea da, bere metaketa-logikatik. Sistemaren parametroetatik irten gabe, kapitalismo berdeak hazkundearen eta kontserbazioaren arteko bateragarritasuna azpimarratzen du. Haatik, ez ditu gelditzen ingurumenarekin, pobreziarekin eta desberdintasunarekin lotutako egiturazko arazoak.

Adibidez, nekazaritzako deribatuen espekulazioak, ingurumen-narriadurako eta hazkunde demografikoko testuinguru batean, herrialde pobretuenetan eragina duten elikagai-krisiak eta goseteak piztu ditu, batik bat Saharaz hegoaldeko Afrikan eta, bereziki, beren diru-sarreraren erdia baino gehiago elikatzeko gastatu behar duten emakumeengan eta gizonengan. Munduko Bankuaren datuen arabera, mundu osoan haur-hilkortasunaren herena desnutrizioari egozten zaio, eta ia mila milioi pertsona goseak bizi dira mundu osoan, horien arteko % 60 emakumeak. Dinamika horiek gelditzeko, kapitalismo berdearen ikuspegia ez da nahikoa.

Hala ere, elikagaien espekulazioaren eta eskasiaren aurrean, gizarte-antolakuntzako hautabideak sortu dira krisia gainditzeko eta elkarrekin jarduteko modu bat eraikitzeko. Biziraupenerako baliabideen iraunkortasuna, horien erabilgarritasuna, eskuragarritasuna eta aprobetxamendua elikadura-burujabetza eta beste mugimendu batzuen gai nagusietako batzuk dira. Proposamen emantzipatzailea da, herriek beren elikagai- eta produkzio-sistema modu autonomoan definitzeko duten eskubideaz hitz egiten duena. Elikagaiak produzitu, banatu eta kontsumitzen dituztenak elikagai-sistema eta -politiken erdian kokatzen ditu. Horrelako mugimenduak ere hautabide bat dira desberdintasunaren aurkako borrokan.

Nazio Batuen Garapenerako Programako (NBGP) giza garapenari buruzko azken txostenek diotenez, bizi-itxaropenaren, osasunaren eta hezkuntzaren adierazleak eta informazioaren eskuragarritasuna modu globalean hobetu dira. Haatik, aurrerapen horietan aldakortasun handia izan da herrialde, eskualde eta populazio taldeen artean haien barnealdera, baliabideen banaketa desberdin gorakorren ondorioz. Horrela, eztabaida bat sortu da oraintsu garapenerako laguntza ofizialaren lehentasun geografikoaz –errenta ertaineko herrialdeek pobrezia-poltsa handienak dituztenez– eta herrialdeen barnealdera fiskalitate- eta birbanaketa-politikak bultzatzeko premiaz.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eza da beste injustizietako bat, eta aurre egin behar zaio, giza eskubideak urratzen dituelako. Munduko populazio pobreaken gehiengoa emakumeak dira, eta horrek sortu du “pobreziaren feminizazio” kontzeptua. Talde batzuk oso kalteberak dira, hala nola landako emakumeak, nekazariak, indigenak, sektore informalean lan egiten dutenak, migratzaileak, lekualdatuak eta aniztasun funtzionala duten emakumeak. Neskatoak eta neska gazteen egoera ere ez da ona, eta diskriminazioa jasaten dute hainbat modutan: behartutako ezkontzak, nahigabeko haurdunaldiak, lehen hezkuntzatik baztertzea, desnutrizioa eta heriotza.

Emakume eta feministen erakundeek eta nazioarteko agentziek emakume eta neskatoen zapalkuntza-egoera munduan orotarikoa eta komuna dela salatzen dute oraindik. Lanaren banaketa sexual desberdina dela bide, emakumeek ugaltze-lanen arduradun nagusiak izaten jarraitzen dute, eta horrek hezkuntza, lan-merkatua eta bizitza publikoa eskuratzea eta hor bete-betean parte hartzea eragozten die. Munduko 781 milioi pertsona heldu analfabetoen ia bi heren dira<sup>2</sup>. Enplegu prekarioak, ordainsari txikiagokoak eta, batik bat, sektore informalekoak izaten segitzen dute. Desberdintasun handiei egin behar diete aurre baliabideen eskuragarritasunean eta kontrolean –eta horien mozkinetan– eta herentziarako eskubideetan. Emakumeen aurkako indarkeria gora doa, eta horrekin batera, feminizidioa. Oraindik gabeziak daude sexu- eta ugaltze-osasunean, eta atzerapenak sexu- eta ugaltze-eskubideetan, erreakzio fundamentalistengatik.

Genero-desberdintasunek iraunagatik, garrantzitsua da arlo horretan egin diren aurrerapenak aintzat hartzea. Emakumeen mugimenduek eta mugimendu feministek berdintasun ezari aurre egiteko ekintzak politika publikoen agendan sartzeari lortu dute. Horregatik daude herrialde askotan emakumeen indarkeriaren aurka borrokatzeko eta berdintasuna defendatzeko berriaz diseinatutako legeak. Era berean, Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek beren agentziak sortu dituzte emakumeek munduan duten egoera monitorizatzeko, eta genero-desberdintasuna beren maila goreneko ekintzetan sartu dute, hala nola Segurtasun Kontseiluaren ebazpenetan.

Erronka global horiei aurre egiteko, nazioarteko sistema demokratiko, anitz eta bizkorra behar da, erronka handiei eta mehatxu ugarietara erantzuneko diena garapenari eta giza eskubideei dagokienez. Dena den, Nazio Batuen sistemak zuzendutako koordinazio- eta antolaketa-saioak ez dira nahikoa izan egungo arazoak konpontzeko.

Azken urteetan, botere-espazioak berriz definitzen ari dira, aktore eta interes berriak agertzen ari baitira. Foro aldean mistoak, non herrialdeak ekonomia-arloan boteretsuak diren eta enpresek eragin handia duten, indartu egin dira, eta Nazio Batuen Sistemaren

---

<sup>2</sup> UNESCO Institute for Statistics (2014): *UNESCO eAtlas of Literacy*

ordezkatzeko eta erabakitzeko ahalmena baztertu egin dute. Aldi berean, ekonomian gorabidean diren herrialdeak bat-batean sartzen ari dira nazioarteko sarean, eta hori ere aldaketa ekartzen ari da botere-oreketan. Oinarritik ere eragile eta esperientzia interesgarriak sortu dira. Deszentralizazio-prozesuei eta tokikoa globalizatzeko fenomenoari erantzuteko, gizarte-mugimenduak, gizarte-erakundeak, unibertsitateak eta pentsamendu-zentroak etengabe hasi dira munduko agendan eragiten. Prozesu dimentsioaniztun eta mailaniztuna da.

Aktore-aniztasunak eta gai globaletan duen parte-hartzeak erronka handiak ezartzen dizkiote tokiko gobernamentuari, baina aldi berean, demokratizatu eta aberastu egiten dute. Aldaketak sortzen dira botere-harremanetan eta arazo globalen konponbideen bilaketan. Herrialde pobretuek eta gizarte zibileko eta erkidegoetako erakundeek ere badute zer esanik politika globalen planteamenduari eta emaitzei buruz.

Iparralde-hegoalde ikuspegia zalantzan dago. Izan ere, tradizioz pobreak izan diren herrialde batzuetako errenta ertaina izatera iritsi da, eta beste batzuek potentzial ekonomiko handia dute (BRICS). Hegoalde-hegoalde lankidetzak gero eta zeregin garrantzitsuagoa du soluzio horizontalak bilatzeko eta herrialde pobretuetatik gaitasunak hobetzeko baliabide gisa. Aldi berean, lankidetzaren agertokia konplexuagoa egiten da aktore berriak eta interrelazio-dinamika berriak agertzean.

Gobernamendu globalaren arloko jarduketan larrialdian eta koordinazioan, komunikazioaren eta informazioaren teknologiek (IKTek) zeregin garrantzitsua dute. Sareak sortzea, eta are politikak eta gobernuak demokratizatzeko partaidetza eta presio globala handitzea lotuta daude IKTen aurrerapen eta nondik norakoekin. Kudeaketa berriko elementuak dituzte eta lagungarri izan daitezke mundu-ordena seguruagoa, bidezkoagoa eta demokratikoagoa bilatzea bultzatzeko.

Hazkunde ekonomikoan oinarritutako garapen-ereduaren mugak oso agerikoak dira. Premiazkoa da gogoetak sustatzea mundu zuzen eta bidezkoagoa lortzeko hautabideak aurkitzeko, hazkunde amaiezin eta desberdinaren logikaren kontrako perspektiben bidez. Gobernamendu globalaren defizitak, nazioarteko erakundeek horiei aurre egiteko dituzten arazoak eta ildo horretan politika-arloan eragiteko premia egungo esparru globalak garapenerako laguntzari ezartzen dizkion erronketako batzuk dira.

Haatik, garrantzitsua da panorama zail horren barruan aukera-testuinguruak identifikatzeko premia azpimarratzea. Garapen tradizionalaren ikuspegiaren ordezkotako paradigmak ezagutzeko, ulertzeko eta, oro har, kontuan izateko, ondo bizitzea, desazkundera, elikadura-burujabetza, dekolonialitatea edo ekonomia feminista eta antzeko proposamenak kontuan

izan behar dira. Garapen kontzeptua ulertzeko eta abian jartzeko izan dugun modua kolokan jartzen duten ikuspegi horiek kontuan izan behar dira.

Herrialde aberastuetan ongizate-estatuaren ahultzeari aurre egiteko gizarte zibiletik sortzen diren gizarte-mugimenduak, erakundeak, plataformak eta estrategiak gizarte-oinarritik antolatutako erantzunen adibide argiak dira. Hautabide gisa, agerian jartzen dute egoera global garaikide konplexuaren barruan arazo jakinei soluzioak aurkitzeko aukera.

Nazioarteko egungo sistemak baditu erronka garrantzitsu batzuk. Aktore guztiek ahaleginak batzea eskatzen du, eta jarduketa koordinatu, arduratsu eta konpartituak sustatzea. Garapenerako lankidetzak funtsezko zeregina du horretan, baina bera bakarrik ez da nahikoa. Politiken koherentzia eta osagarritasun handiagoa behar dira, eta garapenean inplikaturako aktore guztien –tradizional eta gorabidekoen, global eta tokiko en– antolakuntza, garapenaren helburuei aurre egiteko, bai birbanaketaren bidetik, bai gizarte-justiziaren eta gobernamentu globalaren aldeko apustu baten bidez.

## **I.2. Garapen-agenda ofizialaren gakoak**

Laurogeita hamarreko hamarkadan, nazioarteak helburu komun batzuk adostu zituen garapena sustatzeko, eta 2000. urtean gauzatu ziren Milurtekoaren Garapen Helburuetan (MGHetan). MGHak 2015ean lortzeko apustuak berekin ekarri zuen garapenaren finantzaketa eta laguntzaren eraginkortasuna eta kalitatea berraztertzea. Agenda hori, *laguntzaren arkitektura berria* deiturikoa, kolokan jarri dute gizarte zibileko gizarte-mugimenduek eta erakundeek, akademiak eta, are, iparraldeko eta hegoaldeko eskualdeko eta tokiko erakundeek eta, beraz, gogoeta kritikoa behar du.

### **MGHak eta 2015 osteko Agenda**

MGHek pobrezia murrizteko munduko aliantza bat sortzeko balio izan dute, helburu eta epe jakinekin. Baina aurreko hamarkadan egindako goi-bilera eta konferentzia handietako ondorio eta konpromisoetan oinarrituta egon arren, haien nondik norakoa murrizten dute; ez dituzte jasotzen herrialde aberastuen erantzukizunak, eta ez dute giza eskubideen eta generoaren ikuspeirik.

MGHek mugak dituzte, baina garapenaren egungo agenda konfiguratzeko esparrua dira. 2015ean amaituko da horren indarraldia, eta orain arte 2015 osteko Garapen Agenda deitu denari emango dio bide. Agenda hori eztabaidatzen ari diren arren, aurreko aldiari bete gabeko helburuak lortzen lagundu beharko luke. Gainera, 1990eko hamarkadan planteatutako dimentsioak erantsi beharko lizkiokete, hau da, hezkuntzarekin, giza

eskubideekin, herritarrekin, generoarekin, gizarte-garapenarekin, habitatekin eta ekologiarekin lotutakoak.

Gaur egun, Rio+20 agendaren ekarpenak oinarri hartuta ari dira lanean. 2012ko ekainean egin zuten garapen jasangarriari buruzko NBEren biltzar horretako emaitza nagusietako bat garapen jasangarriko helburu (GJH) multzoa ezartzeko hitzarmena izan zen. 2015 osteko agendaren balorazioarekin koordinatuta daude eta horrekiko koherenteak dira. Hala, NBEko Batzar Nagusiko lantalde batek, 30 kidez osatutakoa, GJHen proposamena egiteko agindua jaso zuen.

Era berean, taldeak garapenaren aldeko agendari buruzko herrialdetako eta gaikako kontsultak babesteko proiektua sortu zuen. Kontsulta nazionalen helburua zen GJHen diseinua modu inklusiboan egitea, eta ez estatu guztiek onartu zituzten MGHekin gertatu zen bezala. Bestetik, gaikako kontsulta globalen helburua zen bilera formalak eta informalak antolatzea intereseko taldeekin, hamaika gairi buruz: desberdintasunak, osasuna, hezkuntza, hazkundera eta enplegua, ingurumenaren iraunkortasuna, gobernagarritasuna, gatazka eta hauskortasuna, populazio-dinamika, gosea, elikagai-segurtasuna eta nutrizioa, energia eta ura.

2013an, 2015 osteko agenda eta NBGPren gaikako kontsultak prestatzeko prozesuan aurrera egin zuten. 2014an, lantaldeak garapen jasangarriaren askotariko alderdiak estaltzen dituzten 17 helburuz eta 169 xedez osatutako proposamena bidali zion Batzar Nagusiari. Horien artean nabarmentzekoak dira: pobrezia eta gosea desagerraraztea, osasuna eta hezkuntza hobetzea, hirien jasangarritasuna, klima-aldaketaren aurka borrokatzea eta ozeanoak eta basoak babestea. Gobernuen arteko negoziazioak abiarazi aurretik, beharrezko bi osagai erantsi behar zaizkio, hain zuzen ere: giza eskubideen eta genero-berdintasunaren ikuspegiak. Helburu berriak goi-mailako goi-bilera batean ezarriko dira 2015eko irailean.

### **Garapenerako finantzaketari buruzko eztabaida**

2002ko martxoan, Garapenerako Finantzaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia izan zen Mexikoko Monterrey hirian. Hor, bestek beste, garapenerako laguntza ofiziala (GLO) handitzeko premia adierazi zen, herrialde emaleen errenta nazional gordinaren % 0,7ra iritsi arte, NBEk hirurogeita hamarreko hamarkadan finkatu zuen konpromisoari jarraiki. Konpromiso hori 2008an berretsi zuten, Dohako biltzarrean.

Akordioak izan arren, lotesleak ez direnez, benetako konpromiso politiko bat falta da. Estatu gutxik bete dute edo gutxi saiatu dira betetzen % 0,7ko helburua. Perspektibak are gehiago mugatzen dira, herrialde emaleen krisi finantzarioaren eta atzeraldi ekonomikoaren

ondorioz. Hala ere, bi urtez jaitsierak izan ondoren (termino absolutuetan), herrialde emaileen GLOa igo egin zen, eta 2011ko zifrak berreskuratu zituen.

Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, bigarren klausula gehigarrian, Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzara zer baliabide bideratu behar dituen ezartzen du. Horrela:

Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren % 0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak gehituko ditu garapenerako lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren % 0,7 izan daitezzen.

2008 eta 2012 artean, Eusko Jaurlaritzak gai izan zen lankidetzaren aurrekontu egonkor bati eusteko, guztizko aurrekontuaren % 0,49 ingurukoari. Egoera ekonomiko konplexuagatik 2013an murrizketa izan arren, Eusko Jaurlaritzak aurreko bideari berriz heltzeko konpromisoa hartu du *Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017ko urte anitzeko Plangintza Estrategikoaren jarraibide nagusietan*.

**1. taula: Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako 2008-2013ko aurrekontua<sup>3</sup>**

EAEko aurrekontu	Garapenerako lankidetzarako	Garapenerako lankidetzarako urtean	Garapenerako lankidetzarako urtean
------------------	-----------------------------	------------------------------------	------------------------------------

<sup>3</sup> Urterako aurrekontuan sartutako funtsen artean hauek, daude: (i) langileen gastuetarako funtsak; (ii) funtzionamendurako funtsak; (iii) urte horretan bana daitezkeen funtsetatik uneko urteari dagokion zenbatekoa; eta (iv) aurreko urteetan bana daitezkeen funtsetatik uneko urterako konpromisoak. Urtean bana daitezkeen funtsak dira uneko urtean lankidetzaren tresnen deialdien bidez emandako funts berri guztien batura. Zifra horren barruan daude uneko urteko aurrekontuko funtsak eta hurrengo urteetarako urte anitzeko konpromisoak. Azkenik, gauzatutako funtsak urtean egindako ordainketei dagozkie, deialdi-urtea eta aurrekontua edozein direla ere. Banatutako eta gauzatutako funtsei dagokienez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eratu zen urtetik aurrerako informazioa ematen da.

orokorraren gaineko %	aurrekontua	banatutako funtsak	gauzatutako funtsak
<b>2008</b>			
0,45	45.000.000 €		
<b>2009</b>			
0,49	51.000.000 €		
<b>2010</b>			
0,49	51.006.137 €		
<b>2011</b>			
0,48	50.976.137 €	49.586.282,95 €	44.169.822,12 €
<b>2012</b>			
0,49	50.685.165 €	50.199.077,81 €	54.188.522,31 €
<b>2013</b>			
0,35	32.326.630 €	13.105.126,14 €	31.661.449,55 €

*Iturria: Geuk sortua.*

Beste alderdi aipagarri bat da herrialde pobretuetan gero eta garrantzitsuagoa diren bestelako finantzaketa-iturriak, esaterako, pertsona migratzaileen diru-bidalketak, baliabide naturaletatik datozen errentak, nazioarteko fundazio handiak edo hegoalde-hegoalde lankidetzak.

Egoera horretan, funtsezkoa da herrialde pobretuek garapen-politikak definitzea herritarren partaidetzarekin, eta nazioarteko eragileek horiek babestea eta politika globalekiko koherentzia bermatzea, garapen-helburuak kontuan hartuz.

### **Laguntzaren eraginkortasuna**

Garapenerako helburuei eta finantzaketari buruzko eztabaidekin batera, gogoeta garrantzitsua egin da laguntzaren eraginkortasunari buruz. Goi-mailako lau forotan gauzatu da gogoeta hori: Erroman (2003), Parisen (2005), Accran (2008) eta Busanen (2011).

*Garapenerako laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko adierazpena* funtsezkoa izan zen laguntzaren eraginkortasunaren gaineko agendan. 1990eko hamarkadan, garapenerako lankidetzak zalantzan jarri zuten, emaitza eskasak izan zituelako. Horrenbestez, eraginkortasuna hobetzea lehentasun bihurtu zen. Agendaren helburua garapenerako lankidetzaren nazioarteko sistemaren harremanen erreforma bultzatzea da. Eragile askok ez zuten eztabaida horretan parte hartzeko aukera izan –besteak beste, tokiko eta eskualdeko gobernuek eta gizarte zibilak-. Horregatik, erakunde horiek Parisko adierazpena ikuspegi estatozentriko, gobernutar eta teknokratikoan oinarritutako dagoela eta horrek bere eraginkortasuna mugatzen duela salatu dute.

Horren ondoren, bestelako goi mailako batzarrak egin dituzte Parisko adierazpenaren garapena eta aplikazioa balioztatzeko. Aipatzekoa da 2008an Akkran egin zutena. Horren ondorioz, gobernuz azpiko eragileek eta beste erakunde sozial batzuek aldarrikatutako alderdiak gehitu zituzten garapenaren agendan, adibidez: eragile horiek garapeneko legezko aktore gisa errekonozitzea eta giza eskubideen defentsa eta genero-berdintasuna garapenerako funtsezko baldintza gisa errekonozitzea.

2011ko amaieran, Laguntzaren eraginkortasunari buruzko goi mailako IV. Foroa egin zuten Busanen, ahaleginak egin arren, laguntzaren kalitatean aurrerapenik ez egotearen arrazoiak aztertzeko. Amaitzeko, *Garapenerako lankidetzaren eraginkortasunari buruzko Busango Ituna* sinatu zuten. Adierazpen horrek gaur egungo nazioarteko lankidetzaren osatzen duten eragileen eta modalitateen aniztasuna aitortzen du, eta horrek laguntzaren eraginkortasuna eta kalitatea ulertzeko beste modu bat ezartzen du. Errealitate berri horrek ekintza berritzaileak eta eragileen arteko koordinazioa eta osagarritasuna eskatzen ditu. Bestalde, foroan, garapenerako eta eskubideez gozatzeko baldintzak sortzeko estatukoak ez diren gobernuetako eta tokiko agintarien eginkizuna nabarmendu zuten.

Europar Batasunak aurretik errekonozitu zituen, 2007an abiarazitako *Estatukoak ez diren eragileak eta tokiko agintariak garapenean programarekin* eta 2013ko *Herrialde-kideetako tokiko agintariak gaitzea, gobernantza eta garapenaren emaitzen eraginkortasuna hobetzeko adierazpenarekin*.

Horiek guztiek hainbat gauza erakutsi zuten: alde batetik, nazioarteko ordena aldatzen ari zela eta, bestetik, garapen-aktore berriak agertu zirela, eta haien eragina gero eta handiagoa zela, bai nazioarteko harremanetan eta harreman ekonomikoetan, bai nazioarteko lankidetzan bertan.

### **I.3. Euskal lankidetzaren deszentralizatuaren erronkak munduko testuinguruan**

Euskal lankidetzaren bere espezifikotasun eta nortasun propioak, garapenerako lankidetzaren maila globalean egiten ari den paradigma-aldaketan kokatzen da, baina giza garapen iraunkorraren ikuspegia beti ere esparru izanik.

Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, lankidetzaren politikaren eredu bat proposatzen du, giza garapen iraunkorrerako bideratutako funts egonkorren hornidura bat bermatzen duena. Hala, lankidetzaren politika horren helburuen artean giza garapen iraunkorra sustatzea, pobrezia eragiten duten egiturak eraldatzea eta desberdintasunak desagerraraztea sartu zituzten.

Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Nazio Batuen Programako definizio eguneratuaren arabera ulertzen du giza garapen iraunkorra:

Giza garapena pertsonen askatasunen hedapena da bizitza luzea, osasungarria eta sortzailea izateko; baliosutzat dituzten helmugak lortzeko eta modu aktiboan parte hartzeko garapenari modu ekitatiboan forma ematen planeta konpartitu batean. Pertsonak, aldi berean, giza garapenaren onuradunak eta eragile motibatzaileak dira gizabanako eta kolektibo gisa<sup>4</sup>.

Gero eta agertoki konplexuagoan, aktore ugariaren parte-hartzearekin, botere-harreman asimetrikoekin eta gizarte- eta ingurumen-erronka garrantzitsuekin, eta giza garapen iraunkorraren aldeko apustu horretatik, euskal lankidetzak deszentralizatuak erronka hauei egin behar die aurre:

- **Enfasia garapenean** jartzea: Busanen egindako aurrerapen nagusietako bat izan zen gunea laguntzan jarri beharrean garapenari zentraltasuna emateko deialdia egitea. Horrek zenbait erronka dakartza: (i) agenda teknikoa gainditzea eta alderdi estrategiko eta politikokoagoetan aurreratzea; (ii) garapenerako lagungarri diren ekintza eta prozesu guztiak (laguntza tradizionalaz haraindi) identifikatzea; eta (iii) politiken koherentzian aurrera egitea herrialde pobretuetan politika publikoen eragin negatiboak identifikatzeko eta ezabatzeko.
- Lankidetzak deszentralizatuaren **agenda propio** bat eraikitzen laguntzea: azken urteetan, protagonismo handiagoa ari zaio aitortzen nazioartean agintari azpiestatalen zereginari. Horren guztiaren adierazgarri dira Estatukoak ez diren eragileak eta tokiko agintariak garapenean EBren programa, Busango adierazpena, tokiko agintariei buruzko Europar Batasunaren komunikazioa edota 2015 osteko agenda diseinatzeko kontsulta dezentralizatuak. Horrela, euskal lankidetzarako beste erronketako bat da haren 25 urtetik gorako ibilbidearen balioa azpimarratzea. Horretarako, bere ekarpena modu esanguratsuagoan balia dezaketen esparruak bilatu beharko ditu, Europa mailan edo nazioartean garapenaren esparruan eragina izango duten sare, plataforma edo lantaldeetan antolatuta.
- **Aldeaniztasun aktibo berri** baten eraikuntzarantz aurrera egitea, sareetan parte hartzera bultzatuz, politikan eraginez eta hiritartasun global bat sustatuz.
- Lankidetzak **politika publiko** finkatzea: Gobernuak eta euskal gizarteak garapenerako laguntzarekin duten konpromisoa adierazi dute beti, euskal herriaren tradizio solidarioaren zati bereizezin gisa. Politika horrek egonkorra eta iraunkorra

---

<sup>4</sup> NGBP (2010): *Informe sobre Desarrollo Humano 2010. La verdadera riqueza de las naciones: Caminos al desarrollo humano*, 24. or.

izan behar du, konpromiso ekonomiko zehatzekin eta ziurrekin, eta erantzunkidetasuneko eta gizarte-justiziako printzipioetan oinarritu behar da.

## **II. IKASITAKO IKASGAIAK ETA ERRONKAK EUSKAL LANKIDETZARENTZAT**

### **II.1. Lankidetzaren deszentralizatuaren eredu propio baterantz**

Euskal lankidetzaren ereduak, estatuan zein Europan, erreferente garrantzitsutzat hartzen da lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan. Azken hamarkadetan bere jarduketara biribilduz joan da, bere garapen-eredua definituz eta nortasun propioarekin egokituz nazioartean garapenaren teoriaren eta praktikaren inguruan gertatu diren aldaketak eta bilakaerak.

Lankidetzaren deszentralizatua 1980ko hamarkadan sortu zen eta 1990eko hamarkadan garatu zen batik bat. Azken aldian funtsezkoa izan da Espainiako garapenerako lankidetzaren, eta horren ezaugarri nagusietako bat da. Azken urteetan atzerapen finantzario nabarmena izan duen arren, ELGaren Garapenari Laguntzeko Batzordeko (GLBko) emaileen artean, Espainian izan du pisu handiena lankidetzaren deszentralizatuak –bereziki, jatorria autonomia-erkidegoetan eta udaletan duenak-.

Eusko Jaurlaritzak arlo honetan garatzen dituen ahaleginen arau-esparru nagusia **otsailaren 22ko 1/2007 Legea da, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa**. Lege horrek printzipio antolatzaile, helburu eta lehentasun batzuk ezartzen ditu, euskal lankidetzari ongi definitutako nortasuna ematen diotenak, egiturazko pobrezia eta desberdintasunak erauzteko eredu batean zentratua, epe luzerako garapen-prozesuei lagun egitetik.

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzak, legearen 4. artikuluan definitzen den bezala, hauxe du lehen helburua:

Bizi-baldintza duinak izatea eragozten duten desberdintasunak erauzten laguntzea. Horretarako, giza garapen iraunkorra sustatzeaz gain, zentzu zabalean pobrezia eragiten duten egiturak eraldatzeko ahaleginak egingo dira; horien artean, kontzeptu hauekin zerikusia dutenak: diru-sarrerekin, bizitza oso eta sortzailea izateko oinarritzko baldintzekin, pertsonak beren bizitzetan eragiten duten erabakietan parte hartzeko aukerarekin, askatasun zibil eta politikoekin, etab.

Gainera, apustu hauek egiten ditu: gizarte zibila eta partaidetza demokratikoa sendotzea; muturreko ahultasun-egoerak gainditzea; nazioarteak gizarte-justizia gauzatzen, pobrezia-kausak erauzten eta giza eskubideak defendatzen egindako ahaleginarekin laguntzea; eta kultura, nazioarteko elkartasuna eta herritartasun globala bultzatzea, bai euskal gizartean, bai oro har.

Legeak egitura instituzional eta sozial bat ezartzen du, kalitatezko, partaidetzazko eta adostutako lankidetzak-politika bat bermatuko duena eta, aldi berean, finkatutako helburuekin koherentea izango dena. Horrela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA) – gaitasun tekniko eta estrategiko handiagokoa– sortzea eskatu da, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (GLEK) eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea (GLEB) sortu dira erakunde arteko partaidetzarako eta koordinaziorako eragile garrantzitsu gisa.

Egia da egungo testuinguruan lankidetzak deszentralizatuak arazo askori egiten diela aurre – horien artean, nola hartu bere gain laguntzaren eraginkortasunaren printzipioak, horiek bere autonomiaren kaltetan jokatu gabe; aurrekontuaren murrizketa, eta abar–, baina “bere legitimitatea bere berezitasuna den balio bereizlean dago”<sup>5</sup>. Bere balio erantsia ikuspegi desinteresatua da, tokiko garapen-prozesuetan laguntzera bideratua, partaidetza-perspektiba batetik. EAeko lankidetzaren-kasuan, balio erantsia, espezifikotasuna eta identitatea zehazten duten ezaugarriak ondoko hauek dira:

- Merkatuaren interesari edo interes geostrategikoei erantzuten ez dien lankidetzak bat da.

---

<sup>5</sup> GGKE-en Koordinakunde Autonomikoen Elkarteak (2012): *La cooperación autonómica y local desde las ONGD*, 3-4. or.

- Eskubide-ikuspegi bat erabiltzen du, desberdintasunaren egiturazko kausetara begira dauden jarduketak indartzen dituena, eta genero-ikuspegia eta jarduketa ekologikoki iraunkorra barnean hartzea sustatzen duena.
- Zenbait aktore antolatzeko gaitasuna duten irabazi-asmorik gabeko gizarte zibileko eragileei lotzen zaie.
- Modu kontzientean egiten du hegoaldeko gizarte zibilak bultzatutako garapen-prozesuen alde, eta gaitasunak sortzen laguntzen die eta horretara bideratzen ditu.
- Lan-esperientziaren kapitalizazioa dagoen sektore eta lurraldeetan kontzentratutako lagun egite bat du praktika konpartituaren bidez, prozesuen, horien emaitzen eta eraginaren kalitatean hobetzen joateko.
- Gizartea eraldatzeko prozesuak bultzatzen ditu Euskadin euskal herritarrengandik hurbil, haien inplikazioa eta konpromisoa bilatuz.
- Partaidetzazko politika bat da, non elkarrizketa- eta adostasun-espazioek antolakuntza hobea bilatzen duten euskal lankidetz-eragileen artean, harreman eta aliantza estrategiko horizontalen bidez.
- Erakunde publikoen arteko osagarritasun eta koordinazio handiagoa bilatzen du.

Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legeari jarraiki, ekainaren 19ko 5/2008 Legeak **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia** sortu eta arautu du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorra osatzen duen organismo gisa, eskubide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoarekin eta, beraz, gaitasun juridiko propioarekin. Garapenerako lankidetz-politika gauzatzeaz gain, Agentziak, besteak beste, eskumena du baliabide ekonomiko eta materialak kudeatzeko, Gobernuari lankidetz-politiken plangintzan aholkatzeko eta funts publikoen transferentziak kudeatzeko.

95/2010 Dekretua, martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena eta 310/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, jardueren hasiera erregulatzen duena. 2011ko urtarrilean jarri zuten martxan eta 2012ko urrian, enpleguko eskaintza publiko baten bidez, talde teknikoa hautatu zuten.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia finkatzea da 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren lehentasuna. Horretarako, hurrengo hauek lortu nahi dituzte: nahikoa giza baliabide kalifikatu; estrategia eta tresna eraginkorrak; erakundeak genero-arloan indartzea; kontuak ematea; komunikaziorako, ebaluaziorako eta datu-kudeaketarako estrategiak diseinatzea eta

sortutako partaidetza- eta koordinazio-espazioetan lortutako dinamismoan eta eraginkortasunean sakontzea<sup>6</sup>.

Plangintza honen bidez, Eusko Jaurlaritzak erronka bati aurre egin nahi dio, hain zuzen ere, lankidetzaren deszentralizatuaren alde jarduten duten elementuak indartzeko eta azpimarratzeko eta horren aurka egiten dutenak kudeatzeko. Modu espezifikoan, neurri zuzentzaileak sartu nahi dira, jokoan den lankidetzaren deszentralizatuaren ereduaren eragin gaiztoak eta mugak minimizatzeko. Horretarako, plan honek garapen-eredua berraztertzea nahi du, funtsezko alderdiak identifikatuta: ikasteko eta kontuak emateko tresnaren ebaluazioan sakontzea; baliabideak eraginkortasunez administratzea; ekimenetan laguntzea; politiken koherentzia; ekintzen osagarritasuna; prozeduren harmonizazioa, eta herritartasun unibertsalera gehiago hurbiltzea.

## II.2. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren diagnostiko kuantitatiboa

2013 arte, Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzara duela hamarkada batetik bideratzen zituen funtsak gehitu ditu eta euskal herri administrazioen aurrekontu orokorretan % 0,49 inguruko partaidetza-maila izan du. Baina, 2013an, krisiaren eta aurrekontuen erabilgarritasunaren ondorioz, joerak atzera egin zuen. Horregatik, plan honetan konprometitutako aurrekontu-mugak zuzendu egin nahi du.

### 2. taula: Eusko Jaurlaritzaren 2008-2013ko guztizko aurrekontuen urteko aldakuntza

Urtea	EJren Aurrekontu Orokorrak	Aldakuntza % aurreko urtearekiko	Lankidetzarako aurrekontua	Aldakuntza % aurreko urtearekiko	GLOaren % EJren aurrekontuarekiko
2008	9.939.662.000	13,72	45.000.000	15,38	% 0,45
2009	10.487.458.000	5,51	51.000.000	13,33	% 0,49
2010	10.315.210.000	-1,64	51.006.137	0,01	% 0,49
2011	10.549.489.000	2,27	50.976.137	-0,06	% 0,48
2012	10.449.167.000	-0,95	50.685.165	-0,57	% 0,49
2013	9.316.657.000	-10,83	32.326.630	-36,22	% 0,35

*Iturria: Geuk prestatua Euskal Autonomia Erkidegoko 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko aurrekontu orokorrei buruzko Legean oinarrituta.*


Eusko Jaurlaritzak lankidetzaren arloan bultzatutako ekintzak hiru esparrutan<sup>7</sup> kontzentratu dira batik bat: garapenerako lankidetzaren, ekintza humanitarioan eta garapenerako hezkuntzan. Gainera, zuzeneko lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu Euskadin zein herrialde kideetan, garapen-jarduketara espezifikoak bultzatzeko. Euskal lankidetzaren aktoreen sendotze

<sup>6</sup> Puntu horri buruz aipatzen diren ondorioak 2011ko urria-azaroan Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan partaidetzaz egindako AMIAtik hartu dira.

<sup>7</sup> 2012an eta 2013an agentziaren ohiko jardueraren 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategikoaren eta Zuzentzailearen bidez arautu dute. Plan berria prestatzeko eta onartzeko atzerapenaren kausa nagusiak kalitatezko partaidetza-prozesu bat gauzatzeko beharrezko denbora eta 2012ko urriko hauteskundearen ondoriozko gobernu-aldaketa izan dira.

instituzionaleko prozesuen alde ere egin du, GGKEn genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako proiektuetarako deialdia eginik, eta espezializatorako eta laguntzaileentzat zenbait laguntza eta beka eskainita.

### 1. grafikoa: 2008-2013 aldian lankidetzaren tresnen arabera banatutako funtsak



Iturria: Geuk prestatua tresna bakoitza emateko 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko aginduetan/ebazpenetan oinarrituta.

Tresnen egungo banaketa –2013an izan ezik; deitutako tresna kopuru txikiagoa izan zen urte horretan– bilakaera logiko baten ondorio da, euskal lankidetzaren ikuspegi estrategikoago eta epe luzeagoko batera bideratu duena.

**Proiektuek (PRO)** pisu handia dute oraindik beren hiru kapituluetan –**garapenerako lankidetzaren (K1); garapen produktiboa eta prestakuntza eta laguntza teknologikoa (K2); eta garapenerako hezkuntza (K3)**–, baina euskal nortasunari lotutako tresna garrantzitsuak ezartzea lortu da. Zehatzago:

- **Programa-tresna (PGM)**, aurrez egiaztatuta, iraupen luzeagoko urte anitzeko esku-hartzeak ahalbidetzen dituena, definitutako lehenespen sektorial eta geografikotik tamaina handiko esku-hartzeak errazten dituzten zenbatekoekin, eta zeharkakoen ikuspegi garrantzitsu batekin. Gainera, finantzaketa sartu da identifikaziorako, tokiko erakundeak instituzionalki indartzeko, garapenerako hezkuntza-ekintzetarako eta ebaluaziorako.

- **Genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako tresna (GBA)**, nolabaiteko izaera berritzailearekin atea irekitzen diona irabazi-asmorik gabeko erakundeak sendotzeko ekimenetarako laguntzari, bereziki genero-politiken instituzionalizazioari dagokionez.
- **Ekintza humanitarioko esparru-estrategien tresna (EHE)**, ekintza humanitarioko esku-hartze estrategikoagoak eta sakontasun handiagokoak ahalbidetzen dituena sektore honetan espezializatutako erakundeentzat.

Arlo geografikoari dagokionez, EAEk desberdintasunak doitutako giza garapenerako indize (GGI-D) ertain eta baxua duten herrialdeetara bideratu du batez ere lankidetzat, bereziki, urteetako lankidetzat-harreman estua sortzeko aukera eman dioten herrialdeetara. 2008-2011 aldirako Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzentzailean lehenetsi gisa ezarritako 22 herrialdeek bildu zuten 2008-2013 aldian emandako funtsen % 77.

**3. taula: 2008-2011 aldirako planean lehenetsitako 22 herrialdeak eta horien sailkapena 2012an.**


Herrialdea	GGIren sailkapena NBGPren arabera	GGI 2012	2012ko GGI-D	Galera globala (GGItik GGI-Dra)	Sailkapen-aldaketa <sup>8</sup>	GGI 2012
Kongoko Errep. Demokratikoa	Baxua	0,304	0,183	39,9	Baxua-Oso baxua	0,681
Mozambique	Baxua	0,327	0,220	32,7	Baxua-Oso baxua	0,582
Boli Kosta	Baxua	0,432	0,265	38,6	Baxua-Oso baxua	0,632
Ruanda	Baxua	0,434	0,287	33,9	Baxua-Oso baxua	0,414
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	-	-	-	-	-	-
Uganda	Baxua	0,456	0,303	33,6	Baxua	0,517
Burundi	Baxua	0,355	-	-	-	0,476
Angola	Baxua	0,508	0,285	43,9	Baxua-Oso baxua	-
Guatemala	Ertaina	0,581	0,389	33,1	Baxua	0,539
Honduras	Ertaina	0,632	0,458	27,5	Baxua	0,483
Nikaragua	Ertaina	0,599	0,434	27,5	Baxua	0,461
El Salvador	Ertaina	0,680	0,499	26,6	Baxua	0,441
Mexiko	Altua	0,775	0,593	23,4	Ertaina	0,382
Kuba	Altua	0,780	-	-	-	0,356
Bolivia	Ertaina	0,675	0,444	34,2	Baxua	0,474
Kolonbia	Altua	0,719	0,519	27,8	Baxua	0,459
Brasil	Altua	0,730	0,531	27,2	Baxua	0,447
Ekuador	Altua	0,724	0,537	25,8	Ertaina	0,442
Peru	Altua	0,741	0,561	24,3	Ertaina	0,387
Venezuela	Altua	0,748	0,549	26,6	Ertaina	0,466
India	Ertaina	0,554	0,392	29,3	Baxua	0,610
Palestinarr Lurralde Okupatuak	Ertaina	0,670	-	-	-	-

*Iturria: geuk prestatua Giza Garapenera buruzko 2013ko Txosteneko datuetan oinarrituta: Hegoaldearen gorakada: Giza aurrerapena mundu anitzean. Datuak 2012koak dira.*

<sup>8</sup> Baxu edo oso baxutzat jo dira 0,3tik beherako GGI-D duten herrialdeak (NBGPk ez du bereizketa hori egiten), Afrikako herrialdeen egoera larria azpimarratzeko.

Historian zehar, euskal lankidetzak lotura eta aliantza estrategikoak ehundu ditu Latinoamerikako herrialdeekin. 2008-2013 aldian banatutako funtsen % 61,46 eskualde horretara bideratu da. Hala ere, Afrikako herrialdeetan bizi den ahultasuneko eta muturreko pobreziako egoerak kontinente horretara laguntza-helburu espezifikoak ezartzera behartu du. Gaur egun, funtsen % 20,55 Afrikako zenbait herrialdetan kontzentratzen dira, hainbat laguntza-modalitate bidez, batik bat proiektu-deialdien eta ekintza humanitarioaren bidez. Bestetik, garapenerako hezkuntzak funtsen % 12,26 kontzentratu du Euskadin.


**2. grafikoa: 2008-2013 aldian banatutako funtsak eremu geografikoaren arabera**



*Iturria: geuk prestatua tresna bakoitza emateko 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko aginduetan/ebazpenetan oinarrituta.*

Azkenik, bultzatzen duen jarduketa motari bere nortasun eraldatzailea ematen ere saiatu da Eusko Jaurlaritzak, eta hori ekimenen banaketa sektorialaren bidez egiaztatzen da. 2008-2013 aldian banatutako funtsen erdia baino gehiago herritarren ekonomia eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko izan dira.

### 3. grafikoa: 2008-2013 aldian banatutako funtsak sektorearen arabera<sup>9</sup>



Iturria: *geuk prestatua tresna bakoitza emateko 2008, 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013ko aginduetan/ebazpenetan oinarrituta.*

### II.3. Partaidetzako ebaluazio- eta diagnostiko-prozesuetatik ikasitako ikasgaiak.

1/2007 Legeak EA Eren lankidetzako orientazio estrategikoak garatu nahi ditu lau urteko gida-planen bidez. Halaber, ezartzen du planak sortu aurretik, aurrekoaren ebaluazioa egin behar dela informazio gisa erabiltzeko. Esparru horretan gauzatu zen **2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen Ebaluazio Parte-hartzailea** –Eusko Jaurlaritzatik garapen-politiken arloan bultzatu zen lehenengoa-. Ebaluazio hori aurrera doa, bere gida planean eta lankidetzari buruzko legean zehaztutako politika publikoaren balorazioa egitera. Eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren apustu bat da pixkanaka ebaluazio-kultura finkatzeko, bere ikuspegi eta jarduketan kalitatea hobetzeko aukera gisa.

Irizpide hauetan oinarritutako ebaluazioa izan zen: (a) 1/2007 Legearekiko koherentea; (b) barne-koherentzia haren formulazioan; (c) bere ikuspegia zalantzan jartzea (egokitasuna); eta (d) tresnei zein eragileen sendotzeari edo beste neurri batzuei buruzko bere helburu nagusi, emaitza eta adierazleen betetze-maila neurtzea (eraginkortasuna). Prozesuaren alderdirik garrantzitsuena izan zen ebaluazioa lehen inputa izan zela plan hau formulatzeko.

<sup>9</sup> 2008-2011 aldirako Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen sailkapenaren arabera ezarritako sektoreak. "Emakumeak ahalduntzea" sektorean, adierazi behar da hemen sartu den ekimen taldea 2008-2011ko Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen kuotan tipifikatutakoari dagokiola: "Bana daitekeen aurrekontuaren % 10 bideratuko da gutxienez xede-populazioa emakumeak, emakume-erakundeak edo helburu espezifiko gisa gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea duten ekintzetara".

Bestalde, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan ordezkariak dituzten EAEko eragileei buruzko **AMIA** izan zen abiarazteko bigarren elementua. Hala, Euskadiko lankidetzaren eta agenteen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak identifikatu zituzten: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena, GGKE-ena eta beste batzuen.

Bi prozesu horien emaitza gisa, **ondorio** hauek atera dira:

1. Oro har, erreferentzia-esparru teoriko bat duen lankidetz-politika bat izatea 2008-2011ko Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen lorpen handitzat hartzen da. Bere indargune nagusi bat da adostasun-maila politiko handia darabilela bultzatu nahi duen lankidetz-ereduari dagokionez. Gainera, arau-esparru arautzaile bat eta aldazio instituzional garrantzitsuak ditu, erreferentzia gisa lagungarri direnak eta jarraibide argiak markatzen dituztenak plangintzarako eta gauzatzeko.
2. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetz eraldatu egin da urteetan zehar, lankidetz irmo eta egonkor gisa finkatu arte, bai ekonomiaren, bai politikaren aldetik. Euskadi autonomia-erkidego adierazgarrienetako bat bezala identifikatzen da lankidetz deszentralizatuaren eremuan, bereziki gizarte zibilari lotua eta estatu-esparruko interes estrategikoek baldintzatu gabea.
3. Politikaren diseinuari dagokionez, nabarmentzekoa da aurreikusitako zehar-ildoan balorazio ona, horiek jarduketa zehatzekin antolatzea konplexua den arren. Euskal lankidetz bereziki aintzatetsi da hauek sustatzeagatik: eskubide-ikuspegia gehitzea, genero-ikuspegia zeharkako bihurtzea; emakumeak ahalduntzearen aldeko ekimenak garatzeko pizgarria eta laguntza, eta garapenerako hezkuntza. Aitzitik, hainbat gairi egindako erreferentzia ahulagoa bihurtu da, hala nola kalitatearen eta eraginkortasunaren hobekuntza (emaitzen araberako kudeaketa, politiken koherentzia, politikak herrialde kideekin lerrokatzea eta erakundeak sendotzea).
4. Bere eraginkortasunari dagokionez, besteak beste, tresnak eta baremazio-irizpideak nahi den lankidetz-ikuspegira ez egokitzea aipatzen da. Modu positiboan baloratzen dira genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako prozesuei laguntzak emateko tresna, euskal lankidetz-eragileen gaitasunak sendotzeari zuzenean begira dagoen tresna gisa; eta nondik norako garrantzitsuagoko jarduketak bultzatzeko programa-tresna, baina oraindik antolakuntza handiagoa falta du lau urterako plangintza estrategiekin eta herrialde-estragiekin.
5. Partaidetza-espazioak sortu dira, baina beti ez dira erabiltzen gai estrategikoetarako, eta eraginkortasun handiagoa behar dute. Baloratzekoa da, halaber, 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailea sustatu nahi den lankidetz-ereduarekin bat datozen EAEko indar politiko guztien artean adostu zutela, nahiz eta lankidetz-eragileen artean koordinaziorik ez izan, ezta politiken koherentzia eraginkorra ere,

nola Eusko Jaurlaritzako sailen barnealdera, hala aldundi, udal eta gainerako eragileen artean.

6. Azkenik, kontuak argitzeko elementuak ahulak dira oraindik, esaterako: ikasitakoaren transmisioa, urteko memoriak prestatzea, proiektuak eta programak ebaluatzea eta agentziaren ekintzak jakinaraztea. Ebaluazio-kulturaren eta hedapenaren falta antzematen da sektorean eta euskal lankidetzaren benetako eraginaren ezjakintasun handia.

Halaber, ebaluazioak zenbait **gomendio estrategiko** ezarri zituen, plan honetan kontuan hartu direnak:

- a) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren kudeaketaren kalitatearen alde egitea, bere gizataldearen osaerari dagokionez; eta kalitatean oinarritutako kudeaketa-sistema bat sortzea, eraginkorra izango dena planetan eta urteko jarraipenean. Gainera, liderra izan dadila politiken koherentzia-prozesuak Eusko Jaurlaritzara eramaten eta jarduketan eta horien eragina hedatzen.
- b) Koordinazio eta partaidetza eraginkorreko espazioak finkatzea eta bizkortzea, sortutako espazioak eraginkor eginez eta hor tratatzen diren gogoetei ikuspegi estrategikoagoa emanaz.
- c) Euskal eragileak eta, batik bat, GGKEak sendotzea, erakunde-aniztasunera bideratutako prestakuntza- eta laguntze-prozesuei eta horien premiei emandako laguntza lehenetsiz.
- d) Tresnak sinplifikatzea eta harmonizatzea, epe luzeko tresnen alde eginez eta plangintza-, jarraipen- eta justifikazio-prozesuak arautzen dituen araudia hobetuz, bizkorragoak eta eraginkorragoak izan daitezten.
- e) Ebaluazioaren eta eraginaren kultura sustatzea, prestakuntzaren gogoetaren eta esperientzien hedapenaren bidez eta, batik bat, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia bera ebaluatzeko protokolo baten bidez.

#### **II.4. Euskal lankidetzaren eragileak**

Euskal erakundeak aitzindariak izan ziren duela 25 urtetik gora hasi zen **lankidetzaren deszentralizatuan**. Denbora horretan, lankidetzaren ereduak sendotu egin da eta esparru instituzional eta arauemailea sortu du. Gaur egun, krisi-egoerak ere eragina izan du sektorean, baina euskal lankidetzaren publikoak eutsi egin dio bere garrantziari eta erreferentzia da oraindik lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan.

Lankidetzaren deszentralizatuak lankidetzaren harremanak ulertzeko modu ezberdina du, partaidetza eta gizartearekiko hurbiltasuna funtsezko elementuak baitira. Horregatik, bere

funtsen zatirik handiena diru-laguntzen deialdi publikoen bidez kudeatzen da. Horrela aitortzen du 1/2007 Legeak: 9. artikuluan, % 10era mugatzen du Eusko Jaurlaritzak eta hari lotutako entitate publikoek zuzeneko lankidetzara bidera dezaketen aurrekontuaren ehunekoak.

Horrela, GGKEak euskal lankidetzaren funtsezko elementu bihurtu dira. *2008-2011ko Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen Partaidetzazko Ebaluazioak* euskal GGKE-en karakterizazio bat jasotzen du, horien heterogeneotasuna erakusten duena<sup>10</sup>. Anitzak diren arren, hamabost GGKEk kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzak banatutako funtsen % 50, eta horietatik hamar egiaztatuta daude programa-tresna eskuratzeko.

**4. taula: 2008-2013 aldian funts gehien jaso duten 30 eragileen zerrenda**

1	Mugarik Gabe	13.614.288,83 €
2	Alboan Fundazioa	13.558.229,91 €
3	Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad Internacional	13.328.201,72 €
4	Mundubat fundazioa	12.253.173,38 €
5	Hegoa Elkartea, Nazioarteko Garapenari eta Lankidetzari buruzko Azterlanen Institutua	9.622.988,47 €
6	Zabalketa - Garapen Sozial eta Kulturalerako Elkartea	8.339.927,07 €
7	Intermon Oxfam Fundazioa	7.802.268,79 €
8	Kulturaren Sozial Berrikuntza Erakundea	7.723.932,76 €
9	Arabako Medicus Mundi	7.546.089,19 €
10	Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundazioa	6.811.577,00 €
11	Mugen Gaietik Elkartea	6.355.512,85 €
12	Fundación Internacional de Solidaridad Compañía de María	6.248.075,82 €
13	Unicef fundazioa - Euskal Herriko Batzordea	5.800.437,90 €
14	Lankidetzarako Ingeniariak	5.150.092,36 €
15	Medicus Mundi Bizkaia	5.044.576,03 €
16	Mundukide Fundazioa	5.006.020,03 €
17	Paz con Dignidad	4.907.866,37 €
18	Setem Hego Haizea	4.542.146,65 €
19	Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna - Bizkaia	4.469.906,14 €
20	ACNUR - Euskal Batzordea	4.445.957,55 €
21	Proclade Yanapay Fundazioa	4.337.461,22 €
22	"Círculo Solidario de Euskadi - Euskadiko Elkarbidea", hirugarren munduarekiko elkartasunezko elkartea	3.891.335,64 €
23	Medicus Mundi Gipuzkoa	3.872.266,44 €
24	Arabako SEADen Lagunen Elkartea	3.565.073,25 €
25	Bizilur - Herrien Lankidetzeta eta Garapenerako Elkartea	3.198.216,85 €
26	Euskal Herriko Unibertsitatea	3.041.567,23 €


<sup>10</sup> Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak 2014an egindako azterlanaren arabera, krisi finantzarioaren eraginak ondorio garrantzitsuak izan ditu euskal eragileentzat: erakundeak ahulagoak dira, kontratatutako langileak gutxiago dira, lanaldiak murriztu egin dira eta Hegoaldeko herrialdeetan proiektuak gelditu egin dira.

27	Haurralde	3.019.162,36 €
28	Tecnalia Research & Innovation Fundazioa	2.995.222,86 €
29	Save the Children	2.944.030,15 €
30	Euskadi - Kuba	2.712.061,53 €

Iturria: Geuk sortua.

**Zuzeneko** lankidetzari dagokionez, laguntza estrategikoak dira, eta Eusko Jaurlaritzak erabakitzeke gaitasuna du konkurrentziarik gabe. Funts horiek aldebiko moduan edo aldeaniztunean bideratzen dira (NBEren agentzien, funtsen, programen eta organismoen bidez) eta horien helburua da subjektu eta eragileak sendotzen laguntzea, erakunde arteko koordinazioa edo giza eskubideen sustapena, besteak beste.

**4. grafikoa: 2008-2013 aldirako zuzeneko lankidetzaren bilakaera, urteko banatutako guztizko funtsen gaineko portzentaje moduan**



Iturria: Geuk sortua.

GGKEek eta Eusko Jaurlaritzak ez ezik, foru aldundiek eta ehun bat udalek (artean hiru hiriburuetakoak) ere bideratzen dituzte baliabideak lankidetzara, zuzenean edo Euskal Fondoaren bidez. Horrenbestez, erreferenteak dira Euskadiko lankidetzaren deszentralizatuaren. 1/2007 Legearen 15. artikulua bidez, **Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea** sortu zen, erakundeetako eragileen komunikazioa eta koordinazioa bermatzeko. Era berean, 16. artikulua bitartez, **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua** sortu zuen, EAEko eragile guztiak ordezkatzeko eta lankidetzaren politika betearazteko eta jarraitzeko.

Hona hemen EAEko lankidetzaren deszentralizatuaren erronka nagusiak, erreferentziako agenteei dagokienez: (i) agenteen erregistroa sortzea, 1/2007 Legearen 10. artikuluari jarraiki; (ii) koordinazio espazioak dinamizatzea eta horiek edukiz betetzea; eta (iii)

hausnarketa-prozesua abiaraztea, EAEko lankidetzaren ereduaren balioetan eta agenteetan oinarrituta, bai iparraldean bai hegoaldean. Erronka horien inplikazioak plan honen V. kapituluaren sakonduko dira.

### **III. IKUSPEGIA, PRINTZIBIOAK ETA LEHENTASUNAK**

#### **III.1. 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren ikuspegia**

2014-2017 aldirako III. Gida Planaren helburu nagusia da giza garapenerako lankidetzaren kalitatea eta eragina hobetzea nortasun eraldatzaile batetik. Eusko Jaurlaritzak sustatu nahi duen lankidetzaren ereduaren Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen, otsailaren 22koan, ezarritako printzipio, helburu eta lehentasunetan jasotzen da. Horiek, ondoren, 2008-2011ko Garapenerako Lankidetzaren II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen erreferentziako esparru teorikoan garatu zituzten.

Plan hau prestatzeko partaidetza-prozesuan, behar hau antzeman da: euskal lankidetzak historikoki ekarri dituen eta ekar ditzakeen berezitasunak eta balio diferentziala modu


partekatuan zehaztea. Ildo horretatik, serio jarduteak eskatzen du lehentasunak, eragileak, tresnak, etab. berrikustea. Hori dela-eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak erabaki du laurteko honetan ahalegin handienak islapen-proposamen hori gauzatera bideratzea. Bitartean, erreferentzia gisa eutsi egingo zaie 2008-2011ko II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen ikuspegiari eta ildoari.

2014-2017 aldirako Gida Planak **lankidetzaren deszentralizatua sustatzearen alde egiten du, giza garapen iraunkorrera bideratutakoa**, halakotzat ulertuta pertsonen askatasunak, aukerak eta gaitasunak zabaltzeko prozesua, beren eskubideak banaka eta taldean baliatu ahal izateko. 1/2007 Legeak ezartzen duenez, aukerak zabaltze horrek funtsezko hiru osagai hauek hartzen ditu: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea; belaunaldi batetik bestera aukeren iraunkortasuna izatea eta pertsonak bultzatzea, garapen-prozesuan parte har dezaten eta horri etekina atera diezaioten.


Era berean, planak egiturazko pobrezia aurrean jarduteko erreferentziako funtsezko esparru gisa eusten dio **herritartasun unibertsalari**. Horren arabera, ezin da ez gizakirik ez herririk baztertu eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak baliatuz. Ideia hori urrundu egiten da estatu-nazio esparrura mugatutako herritartasunaren kontzeptuaren interpretatze murriztailetik eta, era berean, apustu argia egiten du eskubideen ikuspegia bere lankidetzaren funtsezko partetzat hartzeko. 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzaileak adierazten duenez, herritartasun unibertsalak berekin dakar erantzunkidetasun orokor bat pobrezia, kalteberatasunaren eta desberdintasunaren aurrean. Hura garapenaren arduradun diren erakunde eta agenteen ekintza zehatzetan gauzatu behar da.

Nortasun eraldatzaileko lankidetzaren politika da, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea, egiturazko pobrezia erroten kentzean oinarritutakoa eta hiru estrategia hauek euskarri hartzen dituen: (i) subjektu aktiboak eta ahaldunak sortzea, aldatzeko eta pobrezia erroten kentzeko baldintza gisa; (ii) tokiko esparrutik esparru globalerantz aurreratu egiten duten hautabidezko ekimenak abian jartzen laguntzea; eta (iii) alde-aniztasuna eraikitzearen alde egitea, partaidetza bultzatuta eta sareak finkatuta, politikan eraginda eta garapenerako hezkuntza sustatuta<sup>11</sup>.

## 5. grafikoa: Garapenerako euskal lankidetzaren ikuspegia



<sup>11</sup> Ikus erreferentzia-esparrua gida-plan honek bere egindako 2008-2011ko II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailean, 37-42. or.



Iturria: Geuk prestatua, 2008-2011ko Garapenerako Lankidetzaren Plan Estrategiko eta Zuzentzailetik abiatuta, 42. or.

### III.2 Plana antolatzeko printzipioak

Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen 3. artikulua lankidetzaren politikaren antolamendu-printzipioak ezartzen ditu. 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzaileak printzipio horiek egokitu zituen. 2014-2017 aldirako III. Gida Planak bi kategoriatan berrantolatu zituen: (i) oinarritzko printzipio gidariak -EAEko lankidetzaren termino formalean eta doktrinaletan identifikatzen dutenak-; eta (ii) operazioko printzipio gidariak -plan honen helburuei eusten dieten oinarriak-.

#### 5. taula: Oinarritzko printzipio gidariak

<p><b>ELKARTASUN DESINTERESATUA</b></p>	<p>Plan honen esparruan abian jartzen diren lankidetzaren ekimen eta -prozesu guztien xede bakarra izango da pobrezia fenomenoaren eragin eta mantentzen duten egiturak eraldatzea.</p> <p>Lortu nahi litzatekeen beste edozein helburuk edo interesek ez du lekurik ez plangintza honetan, ez euskal lankidetzaren oro har. Izan ere lankidetzatzat ulertzen da "lankidetzarako konpromisoaren ordainetan ez dela jasoko finantza- edo merkataritza-probetxurik, ez dela enpresa-ikuspegiko jarrera hartzerik izango, ez dela ideologia- edo erlijio-proselitismo-eraginik egingo eta ez dela inolako bezero-saririk sortuko" (1/2007 Legearen 3.1 artikulua).</p>
<p><b>LAGUNTZA</b></p>	<p>EAEko lankidetzaren helburua hegoaldeko herrietan ezarritako garapen-prozesuak finkatzea eta sendotzea da. Beraz, horrek adierazten du "ez dagoela kultura-, ekonomia- eta ideologia-eredurik inposatzeko asmorik" (1/2007 Legearen 3.3 artikulua). Honako hau du oinarri: "Garapenerako lankidetzaren jarduerak berariaz errespetatu eta bultzatuko dituzte tokiko komunitateen, gutxiengoaren eta herrien kultura, idiosinkrasia, gizarte eta administrazioa antolatzeko egiturak eta erabakiak hartzeko erazko prozesuak, betiere giza eskubideen, ingurumenaren eta nazioarteko hitzarmenetan hartutako konpromisoen aurkakoak ez badira" (1/2007 Legearen 3.2 artikulua).</p>
<p><b>SAKONTASUNA</b></p>	<p>Bultzatutako lankidetzaren ereduak helburu garbi hau izango du: aldaketa sakonak sortzea eta egiturak eta balioak eraldatzea neurtutako eragina, bai hegoaldean bai inongoan; eta ez soilik beharrik asetzeko edo</p>


## ERANTZUKIDETASUNA



Giza garapen iraunkorraren helburua bera da iparraldearentzat eta hegoaldearentzat, planetan bizi diren emakume eta gizon guztien herritartasun unibertsala oinarri hartuta. Beraz, garapena ez da pobretutako herrialdeen arazoa soilik: funtsezko arazoa da nazioarteko harremanetan. Herrialde batzuen pobretze-egoera, neurri handi batean, beste herrialdeek esportatu duten eta planetaren osotasunean gauzatzen jarraitzen duten garapen-ereduaren emaitza da.

*Iturria: Geuk sortua.*

## 6. taula: Operazioko printzipio gidariak



*Iturria: Geuk sortua.*

### **III.3 Euskal lankidetzaren osotasunerako zeharkako ikuspegiak**

Egungo krisialdi-egoera orokorrak ezarri egiten du ondorioen aurkako jardun-estrategiak sortzea; batez ere, arazo globalen aurkako erro anitzen aurkakoak. Hortik dator euskal lankidetzaren politikaren garrantziak azken helburua izatea, lehen adierazi bezala, giza garapeneraren garapen iraunkorra izatea, herritartasunaren kontzeptu zabala eta sakona barneratuta; hau da, herritartasun unibertsala. Hala ere, garrantzitsua da ere helburu horri ekiteko era zehaztea. Hori da ikuspegi zeharkakoen zentzua.

Euskal lankidetzaren osoan eragina izan behar duten zeharkako esparrua honako hau da: tokiko gaitasunak hobetzea; lankidetzaren baliatzen dutenen parte-hartzea eta antolakuntza; genero-ekitate; giza eskubideen garrantzia; eta iraunkortasun ekologikoa. Hau da, garapenerako lankidetzaren ekintzekin –edozein eremu sektorialetan kokatzen direla ere–, ekintza humanitarioekin eta gizartearen eraldatzeko hezkuntzarekin dute zerikusia. Jardun-modalitate bakoitzean ikuspegi horiek ñabartuko badira ere (aplikazio eraginkorrari dagokionez), ekimen guztietan aplikatu behar dira, duten zentraltasunagatik eta izaera nabarmen eraldatzaileagatik.

Euskal lankidetzaren identifikatzen duten ildo politikoei jarraitutasuna emateko logikari jarraituz, Garapenerako Lankidetzaren 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailean ezarritako zeharkako ikuspegiaren definizio kontzeptualari eta teorikoari eusten zaie<sup>12</sup>.

#### **Tokiko gaitasunak, parte-hartzea eta antolakuntza**

Jardun guztien ardatz egituratzaileak izan behar du garapen-prozesuen protagonista diren gaitasunak sortzea eta etengabeko laguntza, mailakakoa eta kalitatezkoa. Horregatik, esku-hartze guztietan kontuan hartu behar da esperientzia komunitarioaren, antolakuntzakoaren edo instituzionalaren bidez ezagutza kolektiboa eta horretarako abileziak sor daitezen sustatzea.

Partaidetza ezinbesteko eskakizuna da emakumeak eta gizonak benetako subjektuak izan daitezen euren garapenerako, eta erabakiak hartzen esku hartzeko. Testuinguru guztietan ez da beti erraza partaidetza eraginkor, erreal eta ekitatibotik abiatzea. Horregatik, beharrezkoa da berriazko neurriak eta estrategiak hartzea, zeharka lagunduko dutenak gizarte-ehuna, kontzientzia kritikoa eta konpromisoa sorraraztea sartuta dauden pertsona guztien aldetik. Horretarako, gizarte zibileko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta haien eta erakunde publikoen arteko itunak dira partaidetzaren ardatz egituratzailea. Tokiko erakundeak indartzeak berekin dakar autogestio-gaitasunak bultzatzea, euren erabakien eta

---

<sup>12</sup> Zeharkako estrategien esparruari dagokionez, ikus: *2008-2011 aldirako Garapenerako Lankidetzaren II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailea*, l. 3 gidalerroa, zeharkako jarraibideak, 51.-67. or.

horiek dakartzaten ondorioen subjektu eta protagonistatzat definitzen diren pertsonen partaidetzaren bidez. Gainera, esan behar da zeinen garrantzia duen belaunaldien partaidetzak; bereziki, haurrenak eta gazteenak, garapen-subjektu diren heinean. Hala, euren herriekiko eta/edo komunitateekiko herritar kritikoak eta arduradunak sortzen laguntzen da.

Nazioarteko eta tokiko zenbait dokumentuk ezartzen lagun dezakete, hain zuzen ere:

- *Europako Gobernantza. Liburu Zuria*, Europako Batzordearena (2001)
- Europako Batzordearen *Herritarrei eraginkortasuna ematea: kultura eta aniztasuna gazteriarri, kulturari ikus-entzunezkoen sektoreari eta herritarren partaidetzari buruzko programen bidez* (2004)
- *Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria* (2014)

Hala, hauek dira bultzatu beharreko lan-ildoak:

- Epe luzerako lana eta konpromisoak bultzatu eta sustatzea.
- Prestakuntza-estrategiak laguntzarekin eta aholkularitzarekin konbinatzea (trebakuntza).
- Gauzatu beharreko ekimenen fase guztietan partaidetza aktiboa eta kalitatezkoa ahalbidetuko duten estrategia integralak ezartzea.

## **Genero-ekitatea**

Gaur egun, ez dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortu duen gizarterik. Genero-ekitaterako lanaren helburua da desberdintasunak gainditzea eta bizitzaren esparru guztietan benetako berdintasun hori lortzea.

Horretarako, ezinbestekoa da genero-ikuspegia sartzea, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, jasota dagoenez:

... honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeke eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Era berean, kontuan hartuko dira berdintasunaren alde ezarritako nazioarteko konpromisoak; baita, nazioarteko mailatik toki-mailaraino garatutako araudi-esparrua ere:

- *Emakumearen aurkako diskriminazio ezabatzeari buruzko hitzarmena* (CEDAW, 1979) eta horren protokolo fakultatiboa (1999)
- Giza eskubideen aldeko Vienako munduko biltzarra (1993)
- *Beijing-eko deklarazioa eta ekintza-plataforma* (1995)

- Populazioaren eta garapenaren gaineko ekintzari buruzko Kairoko programa (1994)
- Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko Segurtasun Kontseiluaren 1325. Ebazpena (2000)
- *Milurtekoaren deklarazioa* (2000).
- 1/2007 Legea, garapenerako lankidetzari buruzkoa.
- 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

Plan honetan, oraindik ere, genero-ikuspegiak garapenean (GIG) duen garrantzia aintzat hartzen da. Bai planteamendu teorikoan, bai aplikazio praktikoan, ikuspegi horren analisigunea dira gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eta genero-desberdintasuna dakarten gizarte-prozesuak. Ikuspegi politikoa da, desberdintasun horiek sortu eta berrezartzen dituzten egiturak eta sistemak eraldatzekoa, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman asimetrikoak gainditzekoa.

Ildo horretatik, bi estrategia hauei eutsiko zaie: *mainstreaming*, edo generoa zeharkako bihurtzea, eta emakumeen ahalduntzea. Biak estrategia osagarri eta beharrezko gisa daude planteatuta genero-desberdintasunak ezabatzeko:

- **Mainstreamingeko edo generoa zeharkako** bihurtzeko estrategia: ikuspegi politikoa da, eta helburu du emakumeak garapenaren “ildo nagusian” sartzea, azpimarratuta metodologia, analisi, politika, erakunde-jardun eta plangintza guztietan eragiteko beharra, genero-ikuspegi batetik, eta ez soilik emakumeen aldeko zuzeneko eta berariazko ekintzen ikuspegiaren pean.
- **Emakumeak ahalduntzeko** estrategia: emakumeak (umeak, gazteak, helduak eta zaharrak), eta emakumeen eta feministen erakundeak ahalduntzeko prozesuak sustatzera bideratutako berariazko ekintzak babestea.

Zeharkako strategiaren esparruan, hauek dira jardun-ardatzak:

- Genero-ikuspegia instituzionalizatzeko prozesuak bultzatzea, bai euskal lankidetzagenteengan, bai GLEAren barruan ere.
- Emakumeen behar praktikoak eta interes estrategikoak bilduko dituzten, eta maskulinitasun hegemonikoa zalantzan jarriko duen esku hartzeko metodologia sustatzea.
- Genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-esperientzia positiboen trukea sustatu eta hedatzea, tokiko mailatik nazioarteko mailaraino.

## Giza eskubideak

Eskubideetan oinarritutako garapenaren ikuspegiak argitara ateratzen ditu giza garapena oztopatzen duten botere-banaketa desberdina eta jardunbide diskriminatzaileak. Ikuspegi horren abiapuntua da giza eskubideen unibertsaltasuna –eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak–, eta haien zatiezintasuna eta elkarren mendekotasuna. Bere gain hartzen du giza garapena berez eskubide bat dela, ez aldebakarreko ekintza bat (etikoa soilik), eta eskubide hori sustatzeko ahaleginak araudi-mailan jasota daudela, *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean* (1948), eta berori garatzen duten nazioarteko hitzarmen eta itunetan oinarrituta. Besteak beste:

- Giza Eskubideen Europako Konbentzioa (1959)
- *Giza Eskubideen eta Eskubide Politikoen Nazioarteko Hitzarmena* (1966), *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna* (1966) eta haiek betetzeko protokoloak (1966, 1989 eta 2008)
- *Larrialdi egoeretan edo gatazka armatuetan emakumeak eta umeak babesteari buruzko adierazpena* (1974)
- *Emakumearen aurkako diskriminazio ezabatzeari buruzko hitzarmena* (1979) eta horren protokolo fakultatiboa (1999)
- *Gizakien eta herrien eskubideei buruzko Afrikako Ituna* (1981)
- *Haurren eskubideei buruzko Ituna* (1989) eta hura betetzeko protokoloak (2001)
- *Herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen adierazpena* (2007)
- *Garapenerako eskubideari buruzko adierazpena*, Nazio Batuen Erakundearena (1986)
- *2013-2016 aldirako Bake eta Bizikidetzeta Plana*, Eusko Jaurlaritzarena (2013)
- *2015-2016 aldirako Memoria Historikoaren arloko Lehentasunen Oinarri Programa*, Eusko Jaurlaritzarena (2014)

Garapena eskubideekin eta betebeharrekin lotutako arazotzat ulertu behar da. Garapenerako lankidetzarako Eusko Jaurlaritzaren jardun guztiek bultzatu egin behar dute giza eskubideak gauzatzea. Era berean, *eskubideen titular* diren pertsonen gaitasunak bultzatu behar dituzte, eskubide horiek gizalegez erreklamatzeko eta/edo euren *erantzukizunak betetzeko titularrek* dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko.

Eskubideen ikuspegia onartzeak lankidetzeta-ekimenentzat eskatzen du kontuan hartzea subjektu-populazioa onuraduntzat hartu beharrean, eskubideen eta askatasunen titulartzat hartzea; baita banakako eta taldeko titulartasun horiek benetan gauzatuko direla bermatzea. Talde-esparruan, bermatu egin beharko da familien beraien, komunitateen, eta erakunde

publiko eta pribatuen baitan bultzatu egingo dela edota, behinik behin, oztopatuko ez dela giza eskubideak bermatzea.

Giza eskubideen garapenak eta eskubideek eskatzen duten zatiezintasunak ezartzen du pertsonak garapenaren subjektu direla. Horregatik, guztien askatasunak eta aukerak indartuta, pertsonak erdigunetzat hartzen dituen garapena sustatzen da, eskubideak oinarritzat hartuta.

Giza eskubideetan oinarritutako eskubideen ikuspegia kontzeptuzko esparru bat da giza garapenerako prozesuan. Izan ere, arauzko ikuspegia ematen du, giza eskubideen nazioarteko legerian oinarrituta; eta eragiteko ikuspuntu bat da ere, haiek eraginkortasunez babestu eta sustatzera bideratuta.

Nazio Batuetako erakundeen ustetan, garapenerako lankidetzako giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiak honako hau dakar berekin:

- Garapenerako lankidetzaren zerbitzurako programa, politika eta lankidetzak-laguntza guztiek sustatu egin beharko dituzte giza eskubideak; *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean* ezarritako moduan eta, baita ere, giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuetan ezarritako moduan.
- *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean* jasotako giza eskubideen estandarrek eta printzipioek, baita giza eskubideen nazioarteko beste tresna batzuek eta horien ondoriozko printzipioek ere, gidatu egin behar dute garapenerako lankidetzak eta programazio guztia, programazio-fasearen sektore eta prozesu bakoitzean.
- Garapenerako lankidetzak lagundu egin behar du *betebearren titular* diren pertsonen gaitasunak hobetzen, haien erantzukizunak eta erreklamatzeko *zuzenbidezko titularrek* dituzten gaitasunak betetzeko.

Aurretik azaldutakoaren arabera, funtsezkoak diren honako zeharkako estrategia hauek sustatu dira:

- Garapenerako lankidetzaren jardunak bideratzea giza eskubideak eta horiek eraginkortasunez betetzera.
- Indartzea eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta ingurumeneko eskakizun-bideak, herrien garapen-prozesuak eta emakumeen eta gizonen arteko oinarritzko askatasunak bermatzeko.
- Erraztea giza eskubideen errespetua, bermea, babesa, sustapena eta gauzatzea; eta, halaber, eskubide horiek urratzen direneko kasuak salatzea.

## **Iraunkortasun ekologikoa**

Iraunkortasun ekologikoa formalki definitu zuen Nazio Batuetako Ingurumen eta Garapeneko Munduko Batzordeak honela definitu zuen garapen iraunkorra: “egungo belaunaldien beharrak asetzen dituen, euren beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe”<sup>13</sup>. Kontuan izanik planetaren ondasun naturalak mugatuak direla, eta egungo ekonomia-ereduaren bereizgarri den estraktibismoa, argi dago egoera hau ezin dela denboran mugagabe mantendu, ezta, gutxiago ere, eskala orokorrera zabaldu. Beraz, ezin daiteke iraunkortzat ezaugarritu.

Ilido honetan kontuan hartu beharreko jasangarritasun ekonomikoarekin lotutako nazioarteko eta tokiko araudiak eta programak:

- Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpena eta Agenda 21 (1992)
- Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren *Nahi dugun etorkizuna* (2012)
- EBren garapen jasangarriko estrategia (2006)
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunaren aldeko konpromisoa (2001)
- 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarriko Euskal Ingurumen Estrategia
- Tokiko Agenda 21 eta Eskola Agenda 21

Iraunkortasunaren baitan ulertzen da ekonomia, biosfera eta gizartea, elkarren mende dauden sistema zatiezintzat. Iraunkortasunaren aldera, gizarteek mugatu egin behar dituzte euren jarduerak planetaren muga biofisikoetara, eta euren garapena ekosistemen zama- eta lehengoratzeko-ahalmenaren arabera planifikatu. Gako horien arabera planifikatutako eredu horiek besterik ez dira gai izango gizarte-beharrak iraunkortasunez betetzeko.

Baina, ezin da gure planetan iraunkortasunari eta elkarren mendekotasunari buruz hitz egin, baliabide naturalei buruzko ideia aldatu gabe –kontzeptu hori lotuta da naturaren neurrigabeko merkaturatzearekin, pribatizazioarekin eta ustiapenarekin–. Euskal lankidetzan ingurunea berriz kategorizatzeke eta iraunkortasunaren ikuspegia sartzeko, azpimarratu egiten da “ondasun natural komunaren” kontzeptuak duen garrantzia. Zehazki, ondasun naturalen administrazio komun eta iraunkorrari dagokio, epe luzerako iraunkortasuna (ez, ordea, mozkinak maximizatzea) bilatzeko era gisa. Ondasun komunaren kontzeptuak adierazten du haiek beraietan parte hartzen duten pertsonak eta gizarte-taldeek zehaztutako arauen mende daudela, adostuta zeinek duten haiek erabiltzeko eskubidea, eta zein premisaren pean. Ikuspegi horretatik, ondasun komunaren terminoak hurbildu egiten ditu

---

<sup>13</sup> NBE (1987): *Gure etorkizun komuna*, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordearen txostena.

iraunkortasun ekologikoaren eta giza garapenaren ideiak: banandu ezinak diren bi kontzeptu.

Nagusi den eredu neoliberalak eragindako ingurumenaren narriatzeak berekin dakar ondorio sakona eta negatiboa pertsonen eta euren ahalmenean; baita pertsonen ongizatean ere (gainera, haien eskubideak urratzea ere badakar). Hortaz, funtsezko faktoreetako da egiturazko pobrezia sortu eta iraunarazteko. Esparru teoriko horrekin bat etorriz, iraunkortasun ekologikoaren zeharkakotasunaren orientazioa ez da planteatzen garapen-ekimenen eragin negatiboak konpentsatuko dituzten politika sendagarri gisa.

Prebentzio-ikuspegiak berekin dakar garapenaren alorrean sustatutako jardunek ekintza horiek izan ditzaketen eragin kaltegarriei buruzko analisi bat barne hartzea. Hala, eragin horiek saihesteko edo, behinik behin, minimizatzeko neurriak hartu ahal izango dira. Bestetik, proposamen-ikuspegian azpimarratzen da babesten diren prozesuek sustatu egin beharko dutela oreka ekologiko handiagoranzko benetako aurrerapena. Ondasun komun erabilera iraunkorra eta arduratsua, era berean, lankidetzako eragile guztientzat aplikatu beharreko eginbeharra izango da.

Hala, hiru jardun-ildo hauek ezarri dira:

- Iraunkortasun ekologikoaren zeharkakotzea bultzatzea, agenteen eta horiek proiektuaren bizi-zikloaren baitan sartzearen arteko instituzionalizazioa sustatzea.
- Ingurumena eta biodibertsitatea babestera bideratutako esku-hartzei lehentasuna emango dien sektorial berria ezartzea.
- Aplikagarritasun handiagora eta ikaskuntza sozializatzerara begira jardunbide egokiak sustatzea, euskal lankidetzarako balio erantsia sustatuta, azterlanak, ad hoc ikerketak eta ebaluazioak eginda.

#### **III.4. Lehentasuna duten sektoreak**

Lehentasuna duten sektoreak finkatzea da lankidetzaren deszentralizatuaren eta, zehazki, euskal lankidetzaren espezializazio-estrategietako bat. Horrekin baliabideak optimizatu nahi dira eta balio erantsia eta bereizgarria eman nahi zaio, betiere lankidetzan 25 urte baino gehiago eman ondoren metatutako esperientzia baliatuta. Hori dela eta, lehentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzak sektore estrategiko gisa indartu nahi dituen eta kolektiboaren barruan espezializazio- eta profesionalizazio-maila handia duten sektoreek.

Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen, otsailaren 22koaren, 5. artikulua ezartzen du lehentasun sektorialen esparru globala: oinarrizko beharrak estaltzea; giza eskubideak sustatzea; giza gaitasunak eta gizarte zibilaren gaitasunak indartzea;

ingurumena babestea; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea; emakumeak ahalduntzeari bultzada ematea; kultura aniztasuna babestea; gatazkei aurrea hartzea eta bakea sustatzea; ekintza humanitarioa eta larrialdiko ekintza bultzatzea; edo bidezko merkataritzari laguntzea.

Horrez gain, egituraz ahul diren gizarte taldeei (hala nola, herri indigenei, iheslariei edo lekualdatuei, emakumei eta haur eta gazteei) lehentasunez arreta emateko apustu argia ezarri du.

Era berean, arreta berezia eskaintzen die “gure gizartean iparralde-hegoalde errealitatea hobeto eta sakonago ezagutzeko eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herri eta herrialdeen arteko harreman justuagoak bideratzeko”<sup>14</sup> heziketa eta sentsibilizazioko ekimenei. Horrenbestez, banku etikoarekin, herri-ekonomiarekin eta ekonomia solidarioko sareekin lotzen diren erakundeekiko lankidetzak sustatzen du, besteak beste.

Lehentasunak ezarri eta espezializaziorantz aurrera egin nahi duen esparru horretan, 2014-2017 aldirako III. Gida Planak honako bost ildo sektorial hauetan aurrera egitea planteatzen du aldi horretarako: eskubide unibertsalak; gobernamentu demokratikoa eta tokiko boterea; tokiko garapen ekonomikoa; ingurumenaren babesa eta kontserbazioa; eta emakumeak ahalduntzea.

### **Eskubide unibertsalak**

Garapena eta giza eskubideak elkarren mende dauden kontzeptuak dira; horietako bakoitzak besteaz gozatzeko baldintza izan beharko luke. Gaur egun munduko leku askotan etengabe urratzen dira giza eskubideak, eta nazioarteko erkidegoak aurre egin behar duen erronka nagusietako bat izaten jarraitzen du horrek. Horrenbestez, euskal lankidetzaren barruan lehentasuna du eskubideen ikuspegia sakontzeak eta eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak babesteak eta sustatzeak.

Esparru global horren barruan, bereziki aintzat hartuko dira instantzia publikoak eta pribatuak indartzean oinarrituko diren ekintzak eta erkidegoak eta populazio taldeak indartzean oinarrituko diren ekintzak, baita eskubideen sustapena, babesa, bermea eta eskagarritasuna sustatuko duten ekintzak ere. Lehentasuna izango du oinarrizko eskubideak eskuratzea eta baliatzea: ura izateko eskubidea, elikadura izateko eskubidea –haurren desnutrizioaren aurkako borroka barne–, osasuna izateko eskubidea, hezkuntza izateko eskubidea. Giza eskubideen aldeko erakundeek biktimak laguntzeko zereginetan laguntzera bideratzen diren ekimenak ere sektore honen barnean hartzen dira.

---

<sup>14</sup> Eusko Jauriaritza (2007): *1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa*, 5.4. artikulua.

Plan honek sustatzen duen garapen-kontzeptuak pertsonak zein herriak hartzen ditu oinarri. Sustatzen diren ekintzek haien iguripenak ezagutu beharko dituzte eta iguripen horiei erantzun beharko diete, betiere gizarte-justiziaren eta -berdintasunaren eta errespetuaren irizpideak abiapuntu izanik eta kultura-aniztasunaren sustapena kontuan izanik.

Lankidetzaren eredu horren apustu argia da herri indigenei indartzeko eta ahalduentzako eskaintzen zaien laguntza integrala, hots, laguntza ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala. Horretarako, lehentasuna izango dute haien usadioak, ohiturak, hizkuntzak, antolaketak, tradizioak eta sinesmenak sustatuko dituzten jarduketek, betiere pobrezia aurkako borrokan aurrera egiteko, nortasun kulturala sendotzeko eta aniztasuna indartzeko.

#### **7. taula: Eskubide unibertsalak, zatiezintasuna eta egituraz ahul diren kolektiboaren eskubideei arreta berezia eskaintzea**

##### **1.1. Giza eskubideen erabilera osoa bermatzeko berariazko ekintzak sustatzea**

- Giza eskubideak babesten dituzten instantzia publikoak eta pribatuak indartzea.
- Eskubide ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta ingurumenekoak indartzea: osasuna, ura, hezkuntza, etxebizitza, elikadura, lan duina eta kultura izateko eskubidea, besteak beste.
- Giza eskubideen urraketen salaketak laguntzea.
- Giza eskubideen gaineko hezkuntza sustatzea.
- Herri indigenen, iheslarien edo lekualdatuen, nekazarien, emakumeen eta haurren eta gazteen giza eskubideen erabilera sustatzea.
- Biktimen eta giza eskubideen erakundeak indartzea.
- IKTen erabilera bultzatzea, eta herritarren eta kolektiboaren arteko hutsune digitala txikitzen laguntzea

##### **1.2. Ura izateko giza eskubidea sustatzea**

- Populazioak ur edangarria eta saneamendua izan dezan bermatzeko erakundearen kudeaketa-ahalmena indartzea.
- Tokiko erkidegoek ur- eta saneamendu-zerbitzuen mantentze-lanetan eta kudeaketan benetan parte hartzeko konpetentziak sortzea.
- Emakumeek uraren eta saneamenduaren kudeaketa-organotan benetan parte har dezaten sustatzea.

##### **1.3. Osasuna izateko eskubidea sustatzea**

- Osasun-zerbitzu publikoak edo zerbitzu publikoko joera dutenak zuzen eta kalitatez eskuratzea.
- Emakumeek eta gizonek sexu-osasuneko zerbitzuak eskura izan ditzaten sustatzea.
- GIB/HIESaren eta sexu-transmisiozko beste gaixotasunen aurkako borrokan laguntzea.
- Desnutrizio akutuen aurkako borrokan laguntzea, bereziki, bost urtetik beherako kasuetan

##### **1.4. Hezkuntza izateko eskubidea sustatzea**

- Hezkuntza-zerbitzu publikoak edo zerbitzu publikoko joera dutenak zuzen eta kalitatez eskuratzea.
- Baterako hezkuntzako eta sexista ez den hezkuntzako ikuspegia sustatzea.
- Tokiko hezkuntza ez-formaleko prozesuak bultzatzea, prozesu formal publikoaren osagarri gisa.
- Helduen oinarriko hezkuntza-premiak estaltzeko zereginean eragina izatea, batez ere alfabetizazioan eta bokazio-prestakuntzan, betiere emakumeek zerbitzu horietan sar daitezela bermatuta

##### **1.5. Aniztasun sexualarekiko, kulturalarekiko eta etnikoarekiko errespetua sustatzea**

- Herrietako hizkuntzen erabilera babestera eta sustatzera zuzenduko diren hizkuntza-politikak bultzatzea.
- Herrien nortasuna indartzen laguntzea, hezkuntza kulturantzuna eta eleaniztuna sustatuta eta garapen politiko eta sozialeko prozesuak bultzatuta
- Herrien memoria berreskuratzeko, sistematizatzeko eta dibulgatzeko zereginak sustatzea
- Herri indigenetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten jarduketaren estrategiak indartzea

- Gizarte-komunikazioko tokiko sareak eta ordezeko hedabideak indartzea
- Lesbianen, gay-en, transexualen, trabestien, bisexualen eta intersexualen eskubideak babestuko dituzten ekintzak edo kanpainak laguntzea.
- Kultur aniztasuna sustatuko duten proiektuak bultzatzea, globalizazioaren joera homogeneizatzaileei erantzuteko.

*Iturria: Geuk sortua.*

## **Gobernamendu demokratikoa eta tokiko boterea**

Tokiko boterearen kontzeptuak, ikuspegi orokorretik, hartzen du barnean herritarrek haien patua bere egiteko gaitasuna. Tokiko boterea da garapen-estrategia parte-hartzailea, itundua eta zuzena ezartzeko tokiko administrazio demokratikoaren eta herritarren artean –gizarte zibilaren bitartez– ezartzen den sinergia-prozesua. Tokikoa izateak udalaren, eskualdearen edo departamentuaren esparruari dagokio, eta hurbilekoa den horretatik eraikitzekeo testuinguru egokitzat jotzen da.

Tokiko esparruak maila guztietan pobrezia-aren aurkako estrategia parte-hartzaileak prestatzea errazten du, eta erakundeen demokratizazio-prozesuak susta eta erraz ditzake. Hori dela eta, gobernamendu demokratikoaren esparruan, tokiko boterea eta deszentralizazioa indartzea sustatuko duten eta gizarte zibilaren gaitasunak finkatzearen eta parte hartzearen aldeko apustua egingo duten jarduketak sustatuko dira.

Demokratikoki hautatutako tokiko gobernuak zein gizarte zibil antolatua dira arlo horretako protagonista. Arlo horretan, diagnostiko helburuak bilatu nahi dira, erkidegoak berak sentitu eta hautematen dituen beharrak lehenetsi nahi dira, kudeaketa komunitarioko eta parte-hartzaileko prozesuak sustatu nahi dira, populazio subjektuek eragin politikoa duten prozesuak bultzatzea lortu nahi da, gatazkei aurrea hartzeko eta bakearen kultura sustatzeko baldintza egokiak ezarri nahi dira, eta tokiko eragileekin batera jarduketak bideratu nahi dira, batik bat tokiko politika publikoen garapenari arreta jarrita.

Jarduketa-esparru horrek eskarmentua eta jakintza trukatzeko espazioak sortzeko aukera zabaldu du euskal tokiko erakundeen eta jarduten den herrialdeetako tokiko erakundeen artean. Beharrezkoa da, besteak beste, Euskal Fondoaren zeregina azpimarratzea, tokiko lankidetzako erreferentia izanik, ildo honetan lagun dezakeelako.

### **8. taula: Gobernamendu demokratikoa eta tokiko boterea: gaitasun kolektiboak eta parte-hartzea erabakiak hartzeko garaian**

#### **2.1. Tokiko boterea sendotzea eta deszentralizazioa**

- Erakunde deszentralizatuak langile teknikoaren eta politikoen gaitasunen sorrerari laguntzea.
- Udal-mailan sendotzeko eta tokiko politika publikoak kudeatzeko prozesuen arloko laguntza sustatzea eta horren jarraipena bermatzea.
- Estatuko eta tokiko gobernuak herri indigenen garapena bermatzeko ezartzen dituzten ekimen legegileak eta betearazleak bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko duten lege eta politika publikoak prestatzeko bultzatzea, baita emakumeak tokiko garapenaren funtsezko protagonista gisa ikusaraziko

dituzten garapen-planak ere.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera zuzenduko diren tokiko mekanismo instituzionalak indartzea, eta emakumeek berdintasunaren arloko konpromisoak monitoriza ditzaketen parte hartzeko espazioak bultzatzea

## **2.2. Gizarte zibileko erakundeak eta gizarte-mugimenduak indartzea, pobrezia aurkako borrokaren eta garapenaren eredia eraldatuko duten subjektu gisa**

- Gizarte-mugimenduen eta gizarte zibileko erakundeen gaitasun teknikoaren eta instituzionalen sorrera bultzatzea.
- Gizarte zibileko erakundeek eta gizarte-mugimenduek politikan eragina izateko duten ahalmena areagotzea.
- Gizarte zibil antolatuen eta gizarte-mugimenduen sareko lana sendotzea.
- Gizarte zibileko erakundeek eta gizarte-mugimenduek tokiko, estatuko, eskualdeko eta nazioarteko erabakietan benetan parte-har dezaten bermatuko duten mekanismoak eta prozedurak abian jartzen laguntzea.

## **2.3. Lurraldearen kudeaketa komunitarioa, parte-hartzailea eta iraunkorra indartzea**

- Lurralde-babesa ezartzea, kudeaketa parte-hartzailearen bidez.
- Definituta ez dauden mugarik gabeko eta osatu gabeko jabetza komunekiko tituluak ebazten laguntzea.
- Lurraren, lurraldearen eta natura-ondasunen babesa sustatzea, funtsezko eskubide gisa.
- Lurraldeen, ondarearen eta haien natura-ondasunen kontrol eta gobernuko sistemen babesean eta aintzatespenean laguntzea
- Egitura tradizionalak eta komunitarioak sendotzea.

## **2.4. Bakearen kultura eta indarkeriazko gatazken prebentzioa indartzea**

- Gizarte zibilaren eta erakunde publikoen antolamendu-gaitasunak sendotzea, indarkeriazko gatazkei aurrea hartzeko eta bakearen kultura eraikitzeko.
- Gatazken kausen eta ondorioen azterketa eta hedapena sustatzea.
- Gatazkek ebazteko prozesuetan emakumeek parte har dezaten sustatzea, eta bakearen kulturaren eraikuntzan emakumeek duten egitekoa aintzatestea.

*Iturria: Geuk sortua.*

## **Tokiko garapen ekonomikoa**

Tokiko garapen ekonomikoak lurraldean txertatuta dauden eragile guztien parte-hartzea ekarriko du, baita ekonomia-ehun dinamikoak finkatzeko kontzertazioa eta koordinazioa ere. Tokiko administrazioen parte hartzeak, aurreko ildo sektorialean ezarritako moduan, tokiko garapen ekonomikoko prozesuari berme demokratikoak ekartzeaz gain, prozesu horiek ezartzeko oinarritzko elementuak ekar ditzake, hala nola: azpiegiturak, laguntza teknikoa, informazio publikoa, kultura ekintzailerako pizgarriak, eragile ekonomikoen prestakuntza – haien enplegarritasuna errazteko–, eta abar.

Tokiko landa-garapenak garrantzi berezia du puntu horretan. Balio erantsiagatik nabarmentzen da; izatez, produkzio ekologikoko eta kontsumo iraunkorreko irizpideetan oinarritutako tokiko produkzioko eta kontsumoko estrategia barnean hartzen du. Hartara, puntu horretan, lankidetzaren estrategiaren helburua izango da produkzio osasuntsua eta ekologikoki iraunkorra sustatuko duen eta produktoreen sarrera zuzenak bermatuko dituen populazioen elikadura-burujabetzarantz aurrera egitea.

Horretarako, aldi horretan, ahalmen endogenoen hobekuntza –ikuspegi ekonomikotik eta produktibotik– sustatuko duten esku-hartzeak lehenetsiko dira, baita enplegu duineko baldintzak sustatuko dituztenak (batik bat ahultasun-egoera berezian dauden kolektiboentzat) eta tokiko eta ordezkoko garapen iraunkorreko eredueta oinarrituta daudenak ere.

**9. taula: Tokiko garapen ekonomikoa: elikadura-burujabetza sustatzen duten ordezkoko garapen iraunkorreko eredueta oinarritzen diren ekonomia- eta produkzio-ahalmenen hobekuntza sustatzea**

**3.1. Ingurumena errespetatzen duten eta eredu nagusiaren ordezkoak diren ekimen ekonomikoak eta produkzio-ahalmenak indartzea**

- Tokiko industria-ehuna indartzea, ekonomia solidarioa sustatzen duten produkzio- eta merkaturatze-ekimenei interes berezia eskainita.
- Ekonomia soziala eta solidarioa sustatzea, ordezkoko ekonomia modu gisa.
- Txandakako funtsen bitartez –batik bat, finantza etikoen eta solidarioen irizpideen barruan biltzen diren funtsen bitartez– finantzaketa eskura dadin sustatzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako garapen iraunkorrari ekarpenak egitea eta elikadura-premiari eta kultura-ohiturei erantzungo dieten nekazaritza- eta baso-lanetako sistemak sustatzea
- Iraunkortasunaren arloan, tokiko garapenerako partaidetza-politikak ezar daitezzen bultzatzea.
- Tokiko eragile ekonomikoen gaitasun profesionalak hobetzea, batik bat emakumeena, baldintza duinetan enplega daitezzen errazteko

**3.2. Elikadura-burujabetza eta landa-garapena sustatzea**

- Emakumeak benetan barnean hartuko dituen ikuspegitik, landa-garapen iraunkorrerako laguntza eta pizgarriak ematea.
- Produktore txikiei laguntzak ematea nekazaritza ekologikoko produkzio-sistemak ezartzeko
- Lur-eremuak zuzen banatzeko eta titulartasuna emateko prozesuak bultzatzea, batez ere emakumeak lur-eremuen titular egiteko.
- Elikadura-burujabetzarekin eta nekazarien mugimendurekin, oro har, lotzen diren ekimenak bultzatzea
- Emakumeek egiten duten lan produktiboaren garrantzia bistaratuko duten eta elikadura-eredu tradizionalak aldatuko dituzten proposamenen garapenari laguntzea
- Produkzio-baliabideak eskuratzeko aukeraren demokratizazioarekin lotzen diren ekimenak sustatzea

*Iturria: Geuk sortua.*

**Ingurumen-babesa eta -kontserbazioa**

Ingurumenaren degradazioak aurrera egiten du benetako mundu-mailako krisialdi ekologikorantz. Ondasunen erabileraren kudeaketa desegokiak eraginda, eta aberastasunen metaketan oinarritutako garapen-eredua aplikatzearen emaitza gisa, krisi ekologikoak agerian jartzen ditu euskarri dituen ondasunak era antolatuan eta zuzenean kudeatzen ez dituen garapen-ereduaren ondorioak. Horrek natura-ingurunearen gainustiapena ekarri du, eta habitatak suntsitzea, biodibertsitatea galtzea, lurzorua degradatzea, erregai fosilak agortzea eta abar eragin du. Horrez gain, ekosistema globalean kutsadura, hondakinak eta aldaketak sortu ditu, eta horiek naturan oraindik ere aurreikusi ezin diren desordenak eragiten hasi dira, hala nola klima-aldaketa.

Ildo horretan, ingurumena babesteko eta kontserbatzeko nazioarteko akordioen porrota nabarmendu behar da, batez ere arazo horien aurrean irmotasunez jardungo duen borondate politikorik ez egoteagatik. Agerikoa da porrot horrek lotura estua duela gaur egungo ingurumen-egoeraren arduradun diren, hein handi batean bederen, nazioarteko korporazio handien presioekin.

Bestalde, kapitalismo berdearekin lotzen diren merkatuko neurriak sustatzeak –hala nola kutsadurako eskubideak, CO<sub>2</sub> emisioen merkatua, eta horiek murrizteko programa (REDD)– ez du erabilgarritasunik erakutsi ingurumenaren babesean eta kontserbazioa. Era berean, herrialde pobretuetako ondasun komunak ustiatuta irabaziak egin dituztenek herrialde pobretu horien aldeko zor ekologikoa aintzat ez hartzea garrantzi handiko erronka da ingurumen-problematikaren barruan.

Plan honek sustatzen eta aldarrikatzen duen giza garapen iraunkorraren ikuspegiarekin lotuta, ingurumena babesteari eta kontserbazioari dagokion sektorea txertatu da jarduteko lehentasuna duen sektore gisa eta zehar-ildo gisa, betiere garapenerako lankidetzaren arloan egiten diren esku-hartzeetan eragin irmoa eta erabakigarria izateko.

Hartara, ingurumenaren babesa bultzatuko duten ekimenen alde egingo da, arreta berezia eskainita biodibertsitatearen zaintzari. Natura-ondasun komunen eta ekosistemen kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea sustatuko duten ekintzak indartuko dira, baita lankidetzan parte hartzen duten eragileen artean kontsumo arduratsuaren jarraibideak txertatzea bultzatuko duten ekintzak, ingurumen-kudeaketako politikak bultzatuko dituztenak eta erosketa publiko berdea sustatuko dutenak ere<sup>15</sup>. Halaber, klima-aldaketaren edo horren ondorioen aurka borroka egingo duten tokiko populazioen ekimenak bultzatuko dira.

#### **10. taula: Ingurumen-babesa eta -kontserbazioa: ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesa eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea**

##### **4.1. Natura-ondasunen eta ekosistemen kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea sustatzea**

- Hegoaldeko herrialdeen eragile publikoen eta pribatuen ahalmenak sustatzea, haien ekosistemak eta natura-ondasunak behar bezala zaintzen eta kudeatzen direla bermatzeko
- Natura-ondasunen zentzuzko erabilera parte-hartzaileko ekimenak sustatzea.
- Gizarte zibilaren gaitasunak indartzea, natura-ondasunen ondoriozko baliabide publikoen erabileran gardentasun handiagoa eskatzeko eta ekimenak proposatzeko.

##### **4.2. Lankidetzarekin lotzen diren eragileen artean kontsumo iraunkorreko jarraibideak bultzatzea**

- Eragileen artean ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizazioa sustatzea.
- Kontsumo arduratsurako jarraibide egokiak sustatzea.
- Euskal erakundeen artean eta lankidetzako herrialde bazkideen artean, erosketa publiko berdeko irizpideen arloko sentsibilizazioa eta prestakuntza bideratzea.
- Garapen iraunkorraren eta generoaren arteko loturari buruzko hedapen-kanpainetan laguntzea.

##### **4.3. Klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea**

<sup>15</sup> Produktuen eta/edo zerbitzuen erosketa edo kontratazio berdea da, alderdi ekonomikoak, teknikoak edo kalitatekoak ez ezik, produktu eta/edo zerbitzu horiek haien bizi-zikloan ingurumenean izango duten inpaktua ere aintzat hartzen duen erosketa edo kontratazioa.

- Energia-iturri berriztagarrietan eta toki-mailan egokiak diren teknologia garbietan oinarritzen diren energia-sistemak sustatzea
- Erregai fosilen erabilera murriztuarekin lotzen diren produkzio, mugikortasun eta kontsumoko ereduak sustatzea
- Tokiko populazioak klima-aldaketara egokitzeko eta hura arintzeko prozesuak bultzatzea, batik bat ahultasun handieneko sektoreen artean

*Iturria: Geuk sortua.*

## **Emakumeak ahalduntzea**

Emakumeak ahalduntzeko helburu sektoriala genero-ekitatearen zehar-ikuspegiarekin osatzen da. Biak ikuspegi biltzen dira eta helburu komuna bilatzen dute.

Ildo sektorial horrek emakumeen kontzientzia indibiduala eta kolektiboa bilatzen du, emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea eskuratzeko eta eragina izateko prozesuetan parte-hartze handiagoa izan dezaten. Prozesu horren bitartez, emakumeek talde sozial eta politiko gisa duten protagonismoa eta dituzten gaitasunak indartzen eta areagotzen dituzte, betiere aldaketa positiboak eragiteko, bai haien bizi-baldintzetan, bai gizonekiko duten posizioan esparru soziokulturalari, politikoari, ekonomikoari eta pertsonalari dagokionez. Ahalduntze-prozesuak emakumeen eta gizonen artean boterea berriro banatzeko prozesuak dira, desberdintasunak eraldatzeko eta, oro har, aldatzeko prozesuak. Azken helburua da gizarte-antolakuntzako beste eredu inklusibo, hierarkizatu gabe, zuzenago eta ekitatiboago bat eraikitzea.

Ahalduntze-prozesu horien ezaugarriak dira, batetik, emakumeen banako eraldaketa – konfiantza, autoestimua, duintasuna, kontzientzia, erabaki-ahalmena gehitzea– eta, bestetik, eraldaketa kolektiboa –emakumeen partaidetza eta antolakuntza gehitzea haien baldintzak eta posizioa hobetzeko-. Horrenbestez, estrategia zabala da, hau da, subjektiboa dena eta objektiboa dena hartzen du, indibiduala dena eta kolektiboa dena, tokikoa dena eta globala dena. Indibidualtasunetik eta subjektibotasunetik egindako lana baliagarria izango da emakumeak haien interes kolektiboan –generoko interesen– aldeko borrokan antola daitezkeen. Epe luzerako estrategia da, eta ez dira ekintza sakabanatu eta puntual hutsak, menderatze-egiturak eraldatzea eskatzen baitute.

Ahalduntzearen kontzeptuek oso lotura estua dute emakumeen autonomiarekin eta erabateko hiritartasunarekin, eta, hartara, lehentasuna izango dute dimentsio fisikoan (emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatzea barne), ekonomikoan eta politikoan autonomia sustatzen duten ekimenek.

2014-2017 aldirako III. Gida Planak emakumeak ahalduntzeko prozesuekiko konpromisoari utsiko dio, eta bana daitezkeen funtsen % 20ko kuota ezarriko du emakumeak ahalduntzea

helburu lehenetsi gisa duten ekintzetarako. Ehuneko horretan, tokiko bazkide gisa erakunde feministak dituzten ekimenetarako % 5 ere sartu da.

## **11. taula: Emakumeak ahalduntzea: emakumeek baliabideak eta erabakiak hartzeko prozesuak eskura izan eta kontrola ditzaten sustatzea**

### **5.1. Emakumeen autonomia fisikoaren alde egitea, baita emakumeen aurkako indarkeria eta genero-indarkeria errotik ezabatzearen alde ere**

- Sexu-eskubideen eta ugaltze-eskubideen erabateko erabilera sustatzea, babestea eta bermatzea, legeak, politikak, arauak, erregelamenduak eta programak sustatuta eta ezarrita.
- Sexu-eskubideen eta ugaltze-eskubideen arloko informazioa eta heziketa ziurtatzen duten ekimenak bideratzea, hala nola sexu-osasuneko eta ugaltze-osasuneko zerbitzu integralak eta kalitatekoak, betiere bizi-zikloari eta egokitasun kulturalari erreparatuta
- Nerabezaroko haurdunaldiak eta ama-hilkortasuna prebenitzeko programak ezartzea
- Genero-indarkeria prebenitzearen, hautematearen eta artatzearen arloko politika publikoak diseinatzeko ahalmen instituzionalak sendotzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzearen, hautematearen eta artatzearen arloko gizarte-kontzientziarako kanpainak sustatzea, ikuspegi intersektorialetik.
- Indarkeriaren biktima izan diren emakumeak artatzen dituzten erakundeetako langile teknikoei prestakuntza eta laguntza eskaintzea.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko ekimenak bideratzea, ikuspegi integraletik, eta, horretarako, haien autoestimua sendotzea eta indarkeria eragin duten egitura-kausak uler daitezen aintzat hartuta.

### **5.2. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea**

- Emakumeek baliabideak eta ondasunak eskura ditzaten eta kontrola ditzaten sustatzea, baita horien ondoriozko onurak ere –zehazki, enplegua, lurra, kreditua, makineria eta teknologia–.
- Etxeko lanaren eta etxeetako ongizatearen eta ekonomiaren zaintzaren aldeko ekarpena aintzatets dadin sustatzea eta gizarte-antolakuntz arduratsua sustatzea.
- Landa-giroko emakumeen artean, ordezko produkzio- eta merkaturatze-zikloei buruzko jakintzen transferentziarako eta trebakuntza teknikorako prozesu sistemikoetan laguntzea.
- Ekimen eta sare ekonomikoetarako laguntza eskaintzea eta gaitasun ekintzailea, kooperatibismoa, lan duina eta bestelako elkarte-modu batzuk –autokudeatuak barne– sustatzea.
- Genero-berdintasunaren arloko Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak berresteko edo atxikitzeko estatuetan eragina izatea –etxeko langileentzako lan duinari dagokionak, esate baterako–
- Orotariko diskriminazioak ezabatzea zuzentzen diren lan-berdintasunari buruzko legeak sustatzea eta ezartzea

### **5.3. Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzea**

- Emakumeek oinarrizko eskubide politikoak benetan eskura eta erabil ditzaten sustatzea, eta politiken definizioan eta antolakuntzan parte har dezaten sustatzea.
- Emakumeek elkarte-mugimenduan parte har dezaten sustatzea, eta erakunde publikoetako zein pribatuetoako erabaki eta eragin-esparruetan sar daitezen erraztea.
- Emakume antolatuen gaitasun teknikoak eta politikoak indartzea.
- Askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeen kolektiboak antola eta elkar daitezen sustatzea.
- Emakumeen eta feministen erakundeak sendotzea, eragin politikorako gaitasunari eta sareko lanari dagokionez.
- Erakunde feministen artean, iparralde-hegoalde edo hegoalde-hegoalde sare eta itun estrategikoak sor eta indar daitezen bultzatzea

*Iturria: Geuk sortua.*

### III.5. Lehenetasun geografikoa

Jarduketan metatze eta lehenetasun geografikoa eta sektoriala funtsezko elementua da lankidetzako ekimenen eta ekintzen barreiatzea minimizatzeko eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ekimen horiei zuzentzen dien laguntzaren kalitatea hobetzeko. Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen, otsailaren 22koaren, 6. artikuluan ezartzen denez, pobrezia handieneko egoerak dauden eremu geografikoetan esku hartuko da lehenetasunez, eta horretarako nazioarte-mailan onartzen diren adierazleei jarraituko zaie, hala nola giza garapeneko indizeari edo antzekoei. Horrez gain, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- a) Giza eskubideen urratze larriak eta orokortuak jasaten dituzten erkidegoak eta herriak.
- b) Gatazkan eta giza larrialdiko egoeran dauden eremuak.
- c) Euskadirekin lotura berezia duten herri eta herrialde pobretuak –halakotzat joko dira euskal gizartearen eta erakundeen lankidetzaz-esperientzia zabala duten herrialdeak–.
- d) Euskadin etorkin kopuru bereziki handia duten herriak eta herrialdeak.

2008-2011 aldirako Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen ebaluazio parte-hartzailearen arabera, 2008 eta 2010 artean banatutako funtsen % 87,44<sup>16</sup> planak lehenesten zituen 22 herrialdeetara bideratu zen. 2012 eta 2013 artean, zenbatekoa % 90ekoa izan zen.

2014-2017 aldirako III. Gida Planak, bestalde, ezagutza metatzeko eta ekimen lagunduetan laguntza substantiboa gauzatzeko aukera emango duen lehenetasun geografikoari eustearen alde egin du. Hala ere, euskal lankidetzaren balio erantsia identifikatzeko eta gogoeta egiteko prozesuan, baliteke irizpideak berrikustea, lehenetasuna duten espazioak identifikatzeko eta horren ondorioak zehazteko.

#### 12. taula: 2014-2017 aldirako lehenetsitako herrialdeak

<b>Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe (6)</b>	<b>Hego Amerika (6)</b>	<b>Afrika (8)</b>	<b>Asia (2)</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Kuba</li><li>• El Salvador</li><li>• Guatemala</li><li>• Honduras</li><li>• Nikaragua</li><li>• Mexiko</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Bolivia</li><li>• Brasil</li><li>• Kolonbia</li><li>• Ekuador</li><li>• Peru</li><li>• Venezuela</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Burundi</li><li>• Boli Kosta</li><li>• Mozambique</li><li>• Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa</li><li>• Kongoko Errepublika Demokratikoa</li><li>• Ruanda</li><li>• Senegal</li><li>• Uganda</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• India</li><li>• Palestinar Lurralde Okupatuak</li></ul>

*Iturria: Geuk sortua.*

<sup>16</sup> Zifra hori lortzeko, Euskadiko ekimenei bideratutako funtsak kendu ziren.

Lehentasuna duten herrialdeak mantendu egiten dira, Afrikaren kasuan izan ezik. Azken bost urteetan, euskal GGKE-ek Angolan lagundutako ekintzak nabarmen murriztu dira, eta Senegalek hartu du kontinente horretako herrialdeen artean bosgarren lekua. Senegalek gainera 6. artikuluko betekizunak betetzen ditu. Horrenbestez, Afrikan lehenetsitako herrialdeetan, Angolaren ordean Senegal jarri da. Edonola ere, beharrezkoa da laneko estrategia eta tresnak zehatzago ezartzeko hausnartzea, Afrikako ekintza eraldatzaileari laguntzeko.

Horrez gain, plan horrek gaur arte dauden herrialde-estrategiak (Kuba, Guatemala eta Ekuador) ebaluatzea eta berraztertzea proposatzen du, betiere horien inpaktua ezagutzeko eta tresna bera aztertzeko. Input horiek baliagarriak izango dira lehentasun geografikoari eta tresna desiragarriari buruzko eztabaida aberasteko eta, hartara, euskal lankidetzak laguntzen dituen prozesuen koordinazioa, sakontasuna eta inpaktua hobetzeko.

### **III.6. Ekintza humanitarioa**

2014-2017 aldirako III. Gida Planak, aurreko planak bezalaxe, ekintza humanitarioko politikarako ikuspegi eraldatzailea eta kalitatekoa hartu du, eta egiturazko pobrezia desagerpenean oinarritzen da. Helburuak, lehentasun sektorial eta geografikoak eta tresnak 1/2007 Legean daude bilduta (4.3, 5.1.h, 6.b eta 21 artikulua).

Hondamendi edo krisialdi humanitarioak gizarte eta ekonomiaren arloko desegituratze handiko prozesuak dira. Horiek jasaten dituztenei elikadura- eta osasun-baldintzen narriadura larria eragiten diete, biziraupeneko bitartekoak narriatzen dizkiete, hezkuntza, ura, eta saneamenduaz gozatzeko aukerak kaltetzen dituzte, eta hilkortasuna areagotzen dute. Hondamendi naturalek edo gatazka armatuek eragindakoa izaten dira, eta haien intentsitatea populazioaren ahultasun-mailaren arabera izaten da. Arlo horri buruzko gaur egungo ikuskeren arabera, krisialdi humanitarioak ez dira garapen-prozesuaren eten anomalo eta puntual bat; aitzitik, populazioaren zati handi baten ahultasun handia bereizgarri duen garapen-eredu jakin baten porrota islatzen dute, oro har.

Ikuspegi hori bereziki zuzena da larrialdi politiko konplexuen kasuan –bereizgarri dituztela izaera sistematikoko krisialdi humanitario larriak, ekonomiaren eta estatuaren egituraren porrota edo gerra zibila–. Horietan, populazio zibila gatazka armatuaren ohiko helburu bihurtu ohi denez gero, oso suntsiketa eta hilkortasun maila handiak eragiten dira, baita giza eskubideen eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioaren urratze sistematikoa ere.

Azken urteetako krisialdi sistematikoek agerian utzi dituzte gogoetara deituko diguten honako gai garrantzitsu hauek: eragiketa politikoekin edo militarrekin nahastea laguntza; segurtasun-arrazoia tarteko, biktimengana iristeko zailtasunak izatea; edo aktore

humanitarioen legitimitatea (neutraltasuna) auzitan jartzea, beste aktore batzuk agertzearen ondorioz –indar armatuak, suspertzen ari diren estatuak edo korporazio pribatuak–. Hori dela eta, natura edo giza hondamendi baten aurreko egoerara, hondamendira berera edo ondorengo egoerara mugatzearen ondoriozko ezaugarri espezifikoek gain, ekintza humanitarioak laguntzaren kalitatearen ikuspegia ere bere gain hartu beharko du, betiere inpaktua gehitzeko eta espero ez diren eraginak ez sortzeko.

Azken urteetan, indarra hartu duten hainbat arauzko esparruk eta printzipiok irizpide irmoak eskaintzen dizkiote nazioarteko sistema humanitarioari. Nagusia da *emaille humanitarioen printzipio eta jardunbide onen*<sup>17</sup> esparrua. Esparru horrek alderdi hauek aintzat hartuta bideratzen du esku-hartze humanitarioa: (i) printzipio humanitarioak eta nazioarteko arauak; (ii) laguntza aktore humanitarioen sistemaren bidez bideratzea; (iii) laguntza humanitarioa garapen-prozesuekin integra daitezen sustatzea; eta (iv) esku-hartzeen jarraipenaren eta ebaluazioaren bidez ikasitako ikasgaiak txertatzea.

Era berean, nazioarte-mailako irizpide komunak garatu dira, ekintza humanitarioaren kudeaketa hobetzeko. Horien artean daude *gutun humanitarioa eta erantzun humanitarioko arau minimoak, hondamendi kasuan*, betiere Esfera proiektuaren ondorio gisa. Proiektu horren helburua da laguntza humanitarioaren kalitatea hobetzea eta aktore humanitarioek haien kideei, emailleei eta eraginpeko populazioari kontuak ematea. Erantzun humanitarioaren funtsezko arloetan ekintza gidatzen duten hainbat printzipio komunek eta arau minimo unibertsalek osatzen dute Gutun Humanitarioa.

Proposamen horiek Larrialdiko Egoeretako Hezkuntzarako Nazioarteko Sarearen (INEE, ingelesez) arau minimoekin osatzen dira. *INEE Minimum Standards for Education: Preparedness, Response, Recovery* dokumentu nagusiaren bitartez, sareak nabarmentzen du helburu nagusia dela hezkuntza-eskubidea zaintzearen alde lan egitea. Hezkuntzaren eta erantzun humanitarioaren sektore nagusiaren arteko loturak estutu nahi dira. Horretarako, kalitatea hobetu nahi da hezkuntzak larrialdi-egoeretan duen lehengoratzeko gaitasunean, erantzunean eta prestaketan; pertsona guztiek ikasteko abagune seguruez baliatzeko aukera gehiago izan dezaten lortu nahi da; eta hezkuntza-eskaintzan erantzukizuna eta koordinazioa ziurtatu nahi da.

Lankidetzaren deszentralizatuak ekintza horietan parte hartzeko estrategiak sortu ditu, tokiko zein nazioarteko beste erakunde batzuekin elkarlanean. Adibide adierazgarria da Arabako Larrialdietarako Funtsaren (ALF) esperientzia. ALF 2005ean abiarazi zuten, herrialde pobretuetan larrialdi-egoerei arin eta eraginkortasunez erantzuteko gauza izango den tresna izan dadin, tresna horretan ahaleginak eta funtsa batuko dira. Itun horrek agerian utzi du

---

<sup>17</sup> Espainiar estatuak 2005ean sinatu zuen dokumentu hori.

tokiko mailatik erantzun humanitarioan eraginkortasun eta kalitate handiagoa ahalbidetuko duten elkartzeko beste modu batzuk aztertze aukera.

Eusko Jaurlaritzaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren ekintza humanitarioaren arloko lankidetzak, duela urte gutxira arte, larrialdietako laguntza erreaktibo eta noizbehinkakoetan oinarritu zen, eta epe luzerako esku-hartze integralagoak, berriz, garapenerako lankidetzak-tresnen esparruan gauzatzen ziren. 2008. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzak hondamendi batean –edo hondamendia gertatu eta berehala– egiten diren jarduketetarako tresna eta erregulazio espezifikoak ditu. Tresna eta erregulazio horiei esker, biziraupena bermatu nahi da, sufrimendua arindu nahi da eta pertsonen duintasuna eta eskubideak babestu nahi dira (larrialdiko ekintza). Era berean, Eusko Jaurlaritzak hainbesteko presarik ez duten eta garapenerako, giza eskubideetarako eta bakearen eraikuntzarako (ekintza humanitariorako) oinarriak sustatu nahi dituzten jardueretarako tresnak eta erregulazioak ere baditu.

**Larrialdi-laguntzako proiektuen** bitartez gatazka armatuen edo hondamendi naturalen kalteak jasan dituzten pertsonen beharrei erantzuten zaie, erreskateak, babesak, edateko ura, elikagaiak eta osasun-laguntza emanez, baita txertoak eta osasungarritasun- eta higie-neurriak ere (Garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituen 31/2008 Dekretuaren, abenduaren 19koaren 2.1.a artikulua).

Gainera, hainbat tipologiatako **ekintza humanitarioko proiektuak** ezarriko dira, hala nola iheslariei eta lekualdatuei denbora luzez laguntzeko proiektuak ezartzea, berehalako krisialdiak arintzea, eta hondamendien ondorengo hasierako errehabilitazioa. Era berean, hondamendien aurrean prestatzeko eta prebenitzeko, gatazkei aurrea hartzeko, bakea eraikitzeko eta giza eskubideak eta nazioarteko eskubide humanitarioak babesteko ekintzetan lagunduko da (31/2008 Dekretuaren 2.1.b. artikulua).

Bestalde, **ekintza humanitarioko esparru-estrategiak** finantzatzeko beste tresna bat dago, espezializazio humanitario handiena duten erakundeei zuzentzen zaiena. Ildo horren helburua da: euskal erakundeek arlo humanitarioan dituzten gaitasunak indartzea; plangintza handiagoa eskaintzea, zenbateko handiko funtsak esleitura; eta estaldura mediatiko txikia duten eta, horrenbestez, herritarren artean eragin txikia duten krisialdi humanitarioei erakundeek arreta emateko dituzten zailtasunak ahal den heinean murriztea (31/2008 Dekretuaren 19. artikulua eta hurrengoak).

Nazioarteko iritzien ildotik, euskal ekintza humanitarioaren helburua da krisialdi humanitarioen eraginpean dauden pertsonen bizitza salbatzeko eta sufrimendua arintzeko ahaleginean laguntzea, betiere giza duintasunari, giza eskubideei eta printzipio humanitarioei dagozkien prebentzioko eta babeseko alderdiak barnean hartuta. Eusko Jaurlaritzak

jarduketa humanitarioa bidezko esku-hartzeetarantz bideratu nahi du estrategikoki, eta, horretarako, kudeaketa-prozesu eraginkorrak, testuinguruaren eta egoeran analisi egokiak eta ikastea ahalbidetuko diguten ebaluazioak egingo dira. Era berean, laguntza humanitarioaren eta garapen-prozesuen arteko lotura sendotzeko apustua egiten du. Lotura hori behar-beharrezkoa da, halaber, gure ingurunerik hurbilenekoan egiten diren sentsibilizazioko, komunikazioko, hezkuntzako, ikerketako, mobilizazioko eta eragineko ekintzekin. Azkenik, aktore humanitarioen arteko artikulazio handiagoa lortu nahi da, baliabideen eta gaitasun erantsien optimizazioan oinarritzen den erantzun arina eta baliagarria bermatzearren.

2011. urtean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Ekintza Humanitarioko Batzordearen barruan, ekintza komunitarioko euskal estrategiaz gogoeta egiteko proposamena prestatzera bideratutako lan parte-hartzailea egin zen. Emaitzazko dokumentuan, jarduteko beharrezko zenbait ildo adierazi ziren: **kudeaketa-prozesuen hobekuntza** (tresnak, denborak, kontuak, plangintza eta finantzaketa bezalako alderdiak barne); **aktoreekin egin beharreko lan estrategikoa** (beste administrazio batzuekiko elkarrizketa, aktoreen sendotasuna, eta elkartze selektiboa eta estrategikoa); eta **euskal ekintza humanitarioaren egokitasuna eta kalitatea** (testuinguru berezietarako irizpide espezifikoak; aurreikusgarritasuna eta konektagarritasuna; inpaktura bideratutako ekintzak; jakintzaren sendotasuna; eta esperientziaren kapitalizazioa).

Proposamen horretan arlo humanitarioan jarduteko esparrua ezartzea sustatuko duten lehentasun estrategikoak definitzeko beharra adierazi da. Esparru horrek, batetik, nazioartean garatzen ari diren gogoetak hartu beharko lituzke aintzat, eta, bestetik, euskal ekintza komunitarioaren espezializazioa eta sendotasuna erraztu beharko luke. Hartara, euskal aktore humanitarioen balio erantsia gehitu nahi da. Izatez, euskal aktore humanitarioak askotarikoak dira egun, eta hainbat alderdi sendo dituzte orientazioari, ezarpenari, espezializazioari eta gaitasunei dagokienez.

Plana garatzeko aldian, eta aurrerapen horiek aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren *ekintza humanitarioko strategiaren* diseinu parte-hartzailean sakontzea aurreikusi da. Estrategia horrek ekintza humanitariorako lehentasuna duten helburuak, sektoreak, aktoreak eta kolektiboak eta zehar-ildo espezifikoak definitu beharko ditu. Aurrez, eta 2011n egindako lana osatzera begira, ekintza humanitarioan euskal lankidetzak izan duen ibilbidea aztertuko duen azterketa egingo da. Azterketa horren emaitzazko ondorioek gidatuko dute Estrategia eta orientatuko dute tresnen berrazterketa.

*Ekintza humanitarioko estrategia* eduki arte, hauek hartuko dira jarduteko **lan-esparrutzat edo lehentasuneko sektoretzat**:

- Babesa, zaintza eta oinarrizko tresneria.

- Osasuna.
- Hezkuntza.
- Elikadura-segurtasuna.
- Ekonomia-jarduerak suspertzea.
- Tokiko gaitasunak sendotzea.
- Ura eta saneamendua.
- Azpiegiturak berreraikitzea.
- Giza eskubideen aldeko jarduerak .

Eta **zehar-ildo** gisa beste hauek:

- Tokiko gaitasunak sendotzea eta ahultasuna murriztea, konektagarritasun-irizpidearekin.
- Populazioak parte hartzea eta errealitate soziokulturalaren arabera egokitzea.
- Bakearen babesa, lekukotza eta eraikuntza.
- Genero-ekitatea.
- Iraunkortasuna.

### III.7. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza

**Gizarte-eraldaketarako hezkuntza** erantzunkidetasun-printzipioan oinarritzen den egitura izaerako lankidetzarako lan-arlo zentrala da. Gainera, lankidetzaren deszentralizatuaren balio erantsietako bat da. Krisialdi ekonomikoak sakondu duen globalizazio neoliberaletako gaur egungo testuinguruak erronkak planteatzen ditu esparru politikoan, sozialean, ekonomikoan eta kulturean. Antza denez, gizarte-eraldaketarako hezkuntza inoiz baino beharrezkoagoa da errealitate globalari buruzko kontzientzia kritikoa sortzeko –betiere tokiko errealitatearekin lotuta– eta parte-hartze, mobilizazio eta eraldaketa sozialerako tresnak eskaintzeko –justiziaren eta elkartasunaren ildotik–. Hori dela eta, 2014-2017 aldirako III. Gida Planean, *gizarte eraldaketarako hezkuntza estrategia* diseinatzea da helburu nagusietako bat. Estrategia hori modu parte-hartzailean eraiki nahi da, ahalik eta aktorerik gehien bereganatuta, hezkuntzak gizartearen eraldatzeko duen jardunarekin bat eginik.

Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen, otsailaren 22koaren, 23. artikuluko garapenerako heziketa hartzen du aintzat:

Garapenerako heziketak honako xede hauek ditu: Iparraldearen eta Hegoaldearen garapen ezberdinarekin zerikusia duten arazoaren arrazoi eta ondorioak ezagutaraztea, herritarrengan arazo horien gaineko **kontzientzia kritikoa** piztea eta arlo horretan elkartasunezko eta **konpromiso aktiboko** jarduerak eragitea. Garapenerako heziketaren kontzeptuaren barruan sartuta daude gizartearen sentsibilizazioa eragiteko ekintzak, prestakuntza-ekintzak eta ikerketa-ekintzak.

Azken urte hauetan gisa horretako jarduketak definitzeko zenbait ekimen garatu da Europa-mailan eta Estatu-mailan. 2007. urtean, *Garapenari buruzko Europako adostasuna: hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren ekarpena garapenaren arloan* prestatu zen. Europar Batasuneko kideak eta tokiko eta eskualdeetako agintariak honetara bultzatzen zituen:

... prozesu egituratuak eta iraunkorrak ezartzera eta bultzatzera, epe luzerako ikuspegiak garatzeko eta epe laburrerako lankidetzaren programak garatzeko, betiere garapenaren arloko heziketa eta sentsibilizazioa sustatuko dutenak, kanpoko gaiez eta lankidetzaz eta irakaskuntza formalaz eta informalaz arduratzen diren gobernuetako sailak eta organismoak inplikaturatuta<sup>18</sup>.

2012ko martxoan, Europako Parlamentuari adierazpen bat aurkeztu zioten, Batzordeak eta Kontseiluak epe luzerako sektore anitzeko Europako estrategia prestatzeko, garapenaren arloko hezkuntzarako, sentsibilizaziorako eta hiritartasun global aktiborako. Bestalde, Europako Kontseiluaren Iparralde Hegoalde Zentroak eta garapenerako hezkuntzaren arloko Europako beste erakunde batzuek 2012ko irailean Lisboan antolatu zuten Hezkuntza Globalerako Bigarren Biltzarren esparruan, hezkuntza globalaren aldeko apustuaren beharra berretsi zen.

Estatu mailan, 2005-2008 aldirako *Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen* bidez *Espainiako Lankidetzaren Garapenerako Hezkuntza Estrategia* landu zen, eta Europa-mailako estrategien azterketa konparatibo batean jardunbide onaren eredu bat joko du. Gaur egun, estrategia hori ebaluatzen ari da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren parte-hartzearekin. Ebaluazio horren ondorioak kontuan hartuko dira *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia* prestatzean.

Estrategia prestatzeko garaian kontuan izan beharreko beste elementu bat da **hiritartasun globala** sustatzeko ahaleginean sakontzea. Hiritarren artean kontzientzia kritikoaren hedapen gisa ulertu behar da hiritartasun globala, eta helburua da hiritarrek giza garapen iraunkorra sustatzeko konpromisoa hartzea eta horren alde mugiaraztea, betiere ikuspegi globalari/tokikoari **bazterkeriaren/inklusioaren ikuspegia** gehituta:

Hiritartasun globalaren kontzientziak sustatuta erantzun beharko dio garapenerako hezkuntzak globalizazioak planteatzen duen erronkari. Hortaz, hiritar bakoitza, edonon bizi delarik ere, gizarte globalaren parte da, eta, bere hirikideekin batera, desberdintasun eta injustizia ororen oinarrian dagoen bazterkeriaren aurkako borrokaren erantzulea dela jakin behar du. Globalizazioaren testuinguruan, ikuspegi global horrek Iparralde/Hegoalde ikuspegi geografiko partziala ordezkatu nahi du, munduaren egoeraren analisia erreala lerratzeko joera baitu. Izatez, ez da berez Hegoaldea baztertuta dagoena, Hegoaldeko herri-masa eta Iparraldeko populazioaren gero eta segmentu handiago bat da bazterkeriaren biktima<sup>19</sup>.

<sup>18</sup> Europar Batasuna (2007): *Garapenari buruzko Europako adostasuna: hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren ekarpena garapenaren arloan*, 13. or.

<sup>19</sup> Ortega Carpio, M. Luz (2007): *Estrategia de Educación para el Desarrollo de la Cooperación Española*, AECID, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioa.

Kontuan izango dira esperientzia, dokumentazioa eta aurrez dauden gogoetak, hala nola: (i) Eusko Jaurlaritzak azken hamabost urteetan lagundu dituen ekintzen analisi sistematikoa; (ii) Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Euskal Kontseiluak 2003-2004an sustatu zuen *Eragiten* prozesuaren –hots, *garapenerako hezkuntzako plangintza estrategiko parte-hartzaileko prozesuaren*- emaitzazko ondorioak; (iii) *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategiaren* edukia finkatzeko 2012ko urtarrilaren 12an egindako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren lan-saioko ondorioak; eta (iv) Euskadiko lankidetzaren eta hezkuntzaren arloko mugimenduekin lotzen diren hainbat erakunde azken urteetan antolatutako jardunaldien, mintegien eta biltzarren emaitzazko ondorioak, gogoetak eta gomendioak.

Azkenik, aurreko planak abian jartzean gogoeta estrategikoa egiteko garrantzizkoak direla identifikatu diren elementuak ere badaude. Gai horien artean daude: (i) gizarte-erakundeak sendotzearekin lotzen diren alderdietan sakontzeko beharra; (ii) sustatu beharreko metodologiak; eta (iii) epe ertainera eta luzera eragiteko aukera emango duten tresnak.

Onartu ondoren, estrategiak gizarte eraldaketarako hezkuntzako lehentasunak eta jarduketa-ildoak ezarriko ditu. Bien bitartean, indarrean dagoen garapenerako hezkuntzaren osagaiak aurkeztuko dira, baita horietako batzuetarako identifikatu diren erronkak eta desafioak ere.

#### **a) Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dimentsioak**

Orain arteko apustua izan den garapenerako hezkuntzak honako dimentsio hauek izan ditu bereizgarri:

- **Dimentsio politikoa/etikoa:** gizarte-eraldaketara bideratutako hezkuntzak justiziaren eta berdintasunaren arloko kontzientziazioa, parte-hartzea eta ekintza sustatzen ditu, eredu hegemonikoa auzitan jarrita. Giza baliabideak sustatzea eta babestea du oinarri, botere-harremanak eraldatzeko eta eredu hegemonikoarekiko ordezkotako ereduak sustatzeko.

Dimentsio horrek planteatzen dituen erronkak eta desafioak lotuta daude tokiko ikuspegia / ikuspegi globala berriro definitzearekin, baita emakumeen ekitateari eta ikusgaitasunari, besteak beste, lehentasuna ematearekin eta gure ingurune hurbilean garatzen ari diren ekonomia sozialaren eta solidarioaren arloko ordezkotako ikuspegiekin ere.

- **Kultura(arteko) dimentsioa:** gizarte-eraldaketarako hezkuntzak kultura-aniztasuna babestearen aldeko apustua egin beharko du gizateriarako aberastasun gisa. Kultura-aniztasun hori lagungarria izango da pertsona guztientzat mundu zuzenagoa eta duinagoa itzaroteko eta amets izateko aukera sorta zabaltzeko. Kulturartekotasunaren oinarritzko printzipioak dira elkarrizketa, aintzatespena,

aniztasunaren kudeaketa eta komunikazioa. Oinarrizko printzipio horietan, hain zuzen ere, errotzen da ordeztu eredu berrien eraikuntza soziala eta politikoa.

Gaur egun kulturarteko dimentsio horrek iparralde-hegoalde dikotomia birplanteatzera eta gainditzera eramaten gaitu. Era berean, kulturak eraikuntza bizi eta jokaera-jarraibide gisa ulertzeak hezkuntza eraldatzailea planteatzen gaitu, eta hezkuntza eraldatzaile horrek pertsona guztiontzako giza garapen iraunkorra lortzera bideratutako kulturen aldeko apustua egingo du.

- **Dimentsio pedagogikoa:** garapenerako hezkuntzaren pedagogiak gizarte-ekintzako printzipioa dakar, hots, jakitearen, ahalordearen eta eraldaketaren arteko lotura berri baten bilaketa kooperatiboa, trukea eta ahalduntzea sustatzearen alde apustu egingo duen gizarte-ekintza dakar.

Ilido horretan, ikuspegi afektibo-emozionalak eta ikerketa/ekintza parte-hartzaileak leku berezia hartzen dute gizarte-eraldaketarako hezkuntzan; izatez, emaitza baldintzatzen dute beste pertsona aintzatesteak, estimuak eta ekintza eraldatzaileak. Era berean, errealitatearen analisi kritikoa, eraikuntzaren dekonstrukzioa, ezagutza berrien eraikuntza eta marjinetatik landutako metodologia parte-hartzaileen, eta postulatu epistemologikoen eta pedagogikoen garapena sustatzen duen ikuspegi soziokritikoa adierazi behar da. Bestalde, ahalduntze-ikuspegia lagungarria da, halaber, pertsonak haien garapenaren eta bizi duten munduaren garapenaren protagonista izan daitezen beharrezko gaitasunak sortzea eta indartzea helburu duen pedagogia osatzeko. Edonola ere, ez da ahaztu behar ezinbestekoa dela edukiak eta prozedurak dagozkien kolektibo espezifikoen arabera egokitzea.

Hau da dimentsio horrek planteatzen duen erronka: proposamen epistemologikoetan eta metodologikoetan ez ezik, antolatze modu eta praktika zehatzetan ere islatu beharko dira ikuspegi horiek. Era berean, ikuspegi horiek kolektibo espezifiko zehatzetara eta hezkuntza-prozesuaren hainbat tresnatarako egokitu beharko dira; batik bat sentsibilizazio, eragin eta mobilizazioko proiektuen kasuan.

## **b) Esku hartzeko estrategiak**

Gaur egunera arte, garapenerako hezkuntzaren ekintzak definitu dituzten esku hartzeko estrategia hauen aldeko apustua egin da: (i) eragin politikoa; (ii) berrikuntza eta sormen metodologikoa; (iii) ikerketa; (iv) prestakuntza; eta (v) komunikazioa, truke eta ikasketa kolektiboa. Pertsonak eta taldeak eraldatzeko estrategia horietako hainbat aintzat hartzen dituzten proiektu integralak sustatzea lehenetsiko da.

Bestalde, egiaztatu da komunikazio hezitzaile eta emantzipatzaileko estrategia funtsezkoa dela hezkuntza-ekintzak garatzeko eta inpaktua izateko. Hitzaren, irudiaren, soinuaren edo beste edozein adierazpen artistikoren bidezko komunikazioak funtsezko baliabidea izan behar du hezkuntza eraldatzaile horretan. Testuinguru horretan, komunikazio-bide berriak daude, hala nola teknologia berriak eta sare sozialak. Bitartekorik tradizionalenak ere hizkuntza berri horretara eta gauzak egiteko beste modu horretara egokitzen ari dira. Ordezko bitartekoak agertzen dira eta komunikazio horren hezkuntza-osagaiak giltzarri izan beharko du. Horretarako behar-beharrezkoa izango da hezkuntza-ahalmenaz jabetuko den eta ahalmen mobilizatzailea eta egoera bidegabeen ahalmen eraldatzailea garatuko duen komunikazioa egitea.

### **c) Jarduketa-esparruak eta lotutako eragileak**

Hezkuntza-esparru formalean, ez-formalean eta informalean gauzatzen da gizarte-eraldaketarako hezkuntza. Esparru horiek guztiak izan dira orain arte babesa eman zaion hezkuntzaren lan-espazioak.

Estrategia berria prestatzeari begira, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin koordinazio handiagoa bilatzea eta harekin partekatutako estrategiak prestatzea da erronka, hezkuntza formaleko gizarte-eraldaketarako hezkuntza-jarduketak hezkuntza-erkidegoaren dinamiketan txerta daitezzen. Bestalde, hezkuntza ez-formaleko eta informaleko sektore espezifikoekiko aliantzak dira sakontzea komeni den beste osagai bat.

Eragile lehenetsiei dagokienez, honako hauek nabarmen daitezke: (i) hezkuntza formalean: irakasleak, etorkizuneko irakasleak, irakasleen klaustroak, eskola-kontseiluak, Berritzeguneak, zuzendaritza-taldeak eta guraso-elkarteak, besteak beste; (ii) hezkuntza ez-formalean: astialdiko taldeak eta hezitzaileak, boluntarioak oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeetako langileak, emakumeen eta gazteen erakundeak, gizarte-mugimenduak eta erakunde sindikalak; eta (iii) hezkuntza informalean: komunikabideak, elkarteak eta kultura-sustapenari eta produkzioari lotutako beste kolektibo batzuk.

### **e) Zehar-ildoak**

Arestian adierazi den moduan, planean definitutako zehar-ildoak bertan integratuta dauden ekintza guztiei aplikatzekoak dira, hots, tokiko gaitasunak indartzeari, parte-hartzeari eta antolakuntzari, genero-ekitateari, giza eskubideei eta iraunkortasun ekologikoari aplikatzekoak.

Hortaz, planaren ikuspegi nagusia, zehar-ildoak, printzipio antolatzaileak eta lehentasunak euskal lankidetzaren modalitate eta osagai guztiei aplikatzekoak dira. Ekintza humanitaria

eta gizarte-erlaketarako hezkuntza ere adierazitako ikuspegi, printzipio eta lehentasun ez hornitu behar dira, nahiz eta beren espezifikotasunak dituzten, dagozkien estrategien aurreikusitako garapenean sakonduko direnak.

13. taula: 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren ikuspegia, printzipioak eta lehentasunak

<b>IKUSPEGI NAGUSIA</b>	Lankidetzaren deszentralizatuaren politika sustatzen da, giza garapen iraunkorrera eta egiturazko pobrezia erazterako bideratutako nortasun eraldatzailea duena, desberdintasunen murrizketaren eta eskubideen ikuspegitik		
<b>PRINTZPIOAK</b>			
<b>ZEHAR IKUSPEGIAK</b>			
<b>OSAGIAK</b>	<b>Garapenerako lankidetzaren</b>	<b>Gizarte-erlaketarako hezkuntza</b>	<b>Ekintza humanitaria</b>
<b>SEKTORE LEHENETSIAK</b>	<p>ESKUBIDE UNIBERTSALAK</p> <p>GOBERNAMENDU DEMOKRATIKOA ETA TOKIKO BOTEREA</p> <p>TOKIKO GARAPEN EKONOMIKOA</p> <p>INGURUMENAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA</p> <p>EMAKUMEAK AHALDUNTZEA</p>		<p>Prestakuntza eta hondamendien prebentzioa</p> <p>Larrialdiko eta larrialdi osteko arreta</p> <p>Krisi kronikoetarako arreta</p> <p>Larrialdi/gatazka ondoko birgaitzea</p> <p>Biztanle lekualdatu eta iheslarietarako arreta</p>
<b>LEHENTASUN GEOGRAFIKOAK</b>	<p><b>Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe</b> Kuba, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Mexiko</p> <p><b>Hego Amerika</b> Bolivia, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Peru eta Venezuela</p> <p><b>Afrika</b> Burundi, Boli Kosta, Mozambique, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Ruanda, Senegal eta Uganda</p> <p><b>Asia</b> India eta Palestinar Lurralde Okupatuak</p>		

<p><b>HIRU OSAGAIEK KOMUN DITUZTEN ERAGILEAK</b></p>	<p><b>Lehentasunezko eragileak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia</li> <li>- Euskal GGKEak</li> <li>- Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk (unibertsitateak, erakunde sindikalak, gizarte-mugimenduak eta/edo gizarte zibileko gainerako erakundeak)</li> <li>- Hegoaldeko eragileak: GKEak, tokiko erakundeak eta gizarte-mugimenduak</li> <li>- Alde anitzeko garapen-eragileak</li> </ul> <p><b>Beste eragile batzuk</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Eusko Legebiltzarra</li> <li>b) Eusko Jaurlaritzza (beste sail batzuk)</li> <li>c) Foru-aldundiak eta udalak (edo horien elkarteak)</li> <li>c) Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea</li> <li>d) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua</li> </ol>		
<p><b>OSAGAI BAKOITZAREN ERAGILE ESPEZIFIKOAK</b></p>	<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="width: 50%; background-color: #e0ffe0;"> <p style="text-align: center;">+</p> <p>Irakasleak, klaustroak, eskola-kontseiluak, Berritzeguneak, zuzendaritza-taldeak, astialdiko hezitzaileak, boluntarioak, guraso-elkarteak, komunikabideetako profesionalak, kultura-sustapenari lotutako kolektiboak, gizarte-mugimenduak, sindikalak eta abar.</p> </td> <td style="width: 50%; background-color: #ffe0e0;"> <p style="text-align: center;">+</p> <p>Aktore humanitarioak</p> </td> </tr> </table>	<p style="text-align: center;">+</p> <p>Irakasleak, klaustroak, eskola-kontseiluak, Berritzeguneak, zuzendaritza-taldeak, astialdiko hezitzaileak, boluntarioak, guraso-elkarteak, komunikabideetako profesionalak, kultura-sustapenari lotutako kolektiboak, gizarte-mugimenduak, sindikalak eta abar.</p>	<p style="text-align: center;">+</p> <p>Aktore humanitarioak</p>
<p style="text-align: center;">+</p> <p>Irakasleak, klaustroak, eskola-kontseiluak, Berritzeguneak, zuzendaritza-taldeak, astialdiko hezitzaileak, boluntarioak, guraso-elkarteak, komunikabideetako profesionalak, kultura-sustapenari lotutako kolektiboak, gizarte-mugimenduak, sindikalak eta abar.</p>	<p style="text-align: center;">+</p> <p>Aktore humanitarioak</p>		

*Iturria: Geuk sortua.*

#### **IV. 2014-2017 ALDIRAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK**

Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, xedatzen du euskal lankidetzaren *"helburu, tresna eta proposamen operatiboak"* lau urteko gida-plan baten bitartez planifikatuta garatu behar direla. 2014-2017 aldirako III. Gida Planak berretsi egiten du lankidetzaren deszentralizatua sustatzeko asmoa, giza garapen iraunkorrari eta gaitasunak indartzeari lehentasuna emango diena, genero-ikuspegiari eta gizarte-eraldaketarako

hezkuntzari garrantzia emango diena eta laguntza-lankidetzaren eredutik urrundu eta eskubideetan oinarritutako lankidetzaren gisa finkatuko dena. Gainera, kalitatearen hobekuntzaren, eragileen arteko koordinazioaren eta artikulazioaren eta politiken koherentziaren alde egiten du. Hala, helburu orokor hau ezartzen da:

**Lankidetzaren politikaren kalitatea finkatzen eta hobetzen aurrera egitea, gizarte-eraldaketan, egiturazko pobrezia eraztean eta giza garapen iraunkorrean inpaktu handiagoa lortzeko.**

Helburu hori erdiesteko **funtsezko lau ildo edo helburu** proposatzen dira:

<b>ILDO ESTRATEGIKOAK</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li><b>1. HELBURUA. Euskal lankidetzaren eredua berriz pentsatzea eta eguneratzea</b></li> <li><b>2. HELBURUA. Ebaluazio-kultura sustatzea</b></li> <li><b>3. HELBURUA. Garapenerako lankidetzaren politika diseinatzeko eta kudeatzeko GLEAREN gaitasunak indartzea</b></li> <li><b>4. HELBURUA. Lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetuagoa izatea</b></li> </ol>
-------------------------------	--

Trantsizioan dagoen proposamena da. Alde batetik, euskal lankidetzaren eredua sakonki berraztertzea planteatzen du, elementu bereizgarriak identifikatzeko eta hurrengo lau urteko gida plana prestatzeko. Hausnarketa hori egin bitartean, eta planak biltzen ez dituen arloei dagokienez, agentziaren ohiko zereginak arautzeko 2008-2011 aldirako Garapenerako Lankidetzaren II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen irizpideak erabiliko dira.

Planaren **lehen ildo estrategikoak** euskal lankidetzaren eredua berriz pentsatzea eta eguneratzea du helburu. Diagnostikoen, azterketen, gogoeta-espazioen eta hainbat ebaluaziotatik eratorriko diren gomendio eta ikaskuntzen bitartez, euskal lankidetzaren ezaugarri espezifikoak adostu nahi dira, eta, hartara, eragileetako bakoitzaren rol edo eginkizunak identifikatu eta euskal lankidetzaren osotasunaren balio erantsi handiena eskaintzeko ahalmena duten espazioak eta jarduketak erak zehaztu. Gogoeta horren ondorioek elikatuko dute hurrengo lau urteko gida-planaren esparru kontzeptuala.

Halaber, plan honen aldiaren barruan modu partaidetuan diseinatuko da adostutako lankidetzaren ereduari erantzuneko tresnen proposamena. Tresna horien garapen juridikoa hurrengo plangintzaren aldira atzeratuko da. Azkenik, euskal eragileen lana gidatuko duten dokumentu estrategikoak prestatzea ere aurreikusten da. Besteak beste, partaidetza bidez

prestatuko dira ekintza humanitarioari eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzari dagozkien estrategiak.

**Bigarren ildo estrategikoak** ebaluazio-kultura sustatzea du helburu. Orain arte ez dira sistematikoki kudeatu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako ebaluazioak. Horregatik planteatzen da ebaluazio-plan bat prestatzea eta implementatzea. Plan horren diseinuan aurrera egiten den bitartean, hiru alderdi lantzea proposatzen da: (i) egungo tresnetako batzuk ebaluatzea, aurreko ildoan planteatu den tresnen berrikuspena eta eztabaida aberasteko; (ii) Euskadiko lankidetzaren politika ebaluatzen esperientziaren urteko segimendua, plan honi laguntzeko; eta (iii) ondorioak eta gomendioak ezagutaraztea, erabakiak hartzeko eta ikaskuntza kolektiborako baliagarriak izan daitezten. Halaber, aurreikuspenen arabera ebaluazioa izango da lankidetzako euskal eragileen gaitasunak, trebetasunak eta konpetentziak indartzeko lehenetsiko diren osagaietariko bat.

**Hirugarren ildo estrategikoaren** helburua da garapenerako lankidetzaren politika diseinatzen eta kudeatzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea. Hala, kudeaketa-sistemaren hobekuntza eta langileen prestakuntza planteatzen da, babestutako ekimenei kalitate handiagoko laguntza eskaini ahal izateko. Gainera, gardentasuna areagotu nahi da, eta horretarako, urtean behin kontuak ematea eta komunikazio-plan bat diseinatzea eta implementatzea da asmoa. Azkenik, lanean jarraituko da Agentzian genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko. Horretarako, ekitatearen aldeko antolakuntza-kultura aldatzeko prozesu bat aurrera eramatea planteatzen da.

Azkenik, **laugarren ildo estrategikoak** lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetuagoa izatea du helburu. Lau urte horietan lehentasunezko zat jotzen da Eusko Jaurlaritzaren garapenerako politikaren koherentzian aurrera egitea. Horretarako azterketa bat egingo da eta, hori abiapuntu hartuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan jarraipena egingo zaion lan-agenda bat ezarriko da.

Halaber, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta gainerako euskal erakunde publikoen ekintzen arteko harmonizazio eta osagarritasun handiagoa sustatuko da Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen barruan, eta estatu-mailako, Europako eta nazioarteko foroetan eta lan-espazioetan parte hartzea bultzatuko da, lankidetzaren deszentralizatua posizionatzeko eta aliantza estrategikoak indartzeko. Lankidetzaren politika parte hartzekoa denez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak plan honetatik deribatutako ekintza estrategikoak gauzatzeko paper aktiboa eta dinamikoa izatea espero da.

I. eranskinean gehitu da plan honen plangintza eta jarraipena egiteko matrizea. Bertan zehaztuta daude deskribatutako helburuetariko bakoitzerako emaitzak, ekintzak eta irispide-

adierazleak. Matrize horrek ez ditu agentziaren ohiko jardunaren ildoak, urteko planetan zehaztuko direnak, barne hartzen.

Plan honen VI. kapituluari, berrikuspena egin bitartean erabiliko diren tresnak azaldu dira. Administrazioak diruz laguntzen duen jarduera denez, publikotasun-, lehiakortasun- eta objektibotasun-printzipioekin arautuko da.

## **V. LANKIDETZAKO EUSKAL ERAGILEAK**

Garapenerako lankidetzari buruzko 1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, garapenerako euskal lankidetzako eragileak zein diren ezartzen du:

### **II. KAPITULUA: GARAPENERAKO EUSKAL LANKIDETZAKO ERAGILEAK**

#### **8. artikulua.– Lankidetzako eragileen definizioa**

Lege honen ondorioetarako, hauek dira lankidetzako-eragileak: garapenerako lankidetzako zereginekin lotura berezia duten entitate publiko zein pribatuak izateagatik, horretara bideratutako funts publikoekin finantzaturako jarduerak kudeatzeko aukera izan dezaketenak.

#### **9. artikulua.– Garapenerako euskal lankidetzako eragileak**

##### **1.– Hauek dira garapenerako lankidetzako eragileak:**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak eta horiei lotutako gainerako entitate publikoak.
- b) Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE).

c) Irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuk, lege honen printzipio eta helburuen barruan garapenerako lankidetzak-ekintzak aurrera eramaten dituztenak, hala nola unibertsitateak, erakunde sindikalak edo bestelako erakunde sozialak.

2.– Alabaina, esku-hartzearen izaera teknikoak hala eskatzen duenean, 1. paragrafoan aipatutako eragileek bestelako izaera juridikoko erakundeen parte hartzea bilatu ahal izango dute, betiere lankidetzaren helburua desitxuratu gabe.

Legearen III. kapituluak, bestalde, garapenerako Euskadiko lankidetzaren antolaketa du aztergai. Erakunde eta organo hauek aipatzen ditu:

- a) Eusko Legebiltzarra
- b) Eusko Jaurlaritza
- c) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- d) Lurralde historikoetako eta euskal udalerrietako administrazio publikoak
- e) Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea
- f) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua

Garapenerako lankidetzaren euskal politikaren esparruan egiten den ekintza oro, legeak ezartzen duenez, **elkartasun desinteresatuaren** printzipioaren arabera gauzatuko da; honela jasotzen da adierazitako araudian:

3. artikulua.– Garapenerako lankidetzari buruzko politika bideratuko duten printzipioak  
Garapenerako lankidetzako ekimen guztiek elkartasun ez-interesatuaren printzipioa beteko dute. Horrekin esan nahi da lankidetzarako konpromisoaren ordainetan ez dela jasoko finantza- edo merkataritza-probetxurik, ez dela enpresa-ikuspegiko jarrera hartzerik izango, ez dela ideologia- edo erlijio-proselitismorik egingo eta ez dela inolako bezero-sarerik sortuko.

## **Garapenerako lankidetzako euskal eragileak indartzea**

Aldez aurretik deskribatutako esparrutik, eta 2014-2017 aldirako, euskal lankidetzaren mapaketa egin nahi da –eragileen analisia barne-. Helburua da lankidetzaren eredia berriz pentsatzea eta eguneratzea, eta lehentasunezko eragileentzako estrategia zehatzak ezartzea ekar dezake.

Aurrekoaz gain, planak hainbat xede edo helburu ezartzen ditu, eragileak indartzeko eta haien artean koordinatzeko hasitako prozesuekin jarraitzea bideratuak, prestatzeko eta gaitasunak areagotzeko espazioen bitartez:

### **a) Garapenerako lankidetzako eragileen erregistroa sortzea**

2014-2017 aldian, garapenerako lankidetzako eragileen erregistroa sortu eta arautuko duen dekretua onartzea proposatzen da<sup>20</sup>. Planteatzen da, halaber, lankidetzako eragileen berezitasunak jasoko dituen egiaztatze-sistema baterantz igarotzea. Euskal administrazioentzako erregistro komun baterantz aurrera egitea da asmoa. Egiaztatzearen bidez, gainera, lehiaketetarako administrazio-dokumentazioa aurkezteko prozesua erraztea eta eraginkor bihurtzea bilatuko da.

### **b) Gizarte zibileko erakundeei lehenetsuneko eragile gisa laguntzea**

Lankidetzaren kalitatea hobetzeko nahitaezkoa da, halaber, inplikaturik dauden eragileen gaitasunak, trebetasunak eta konpetentziak hobetzea. Askotariko erakundeak daudenez, diagnostiko bat egingo da bidezkoak diren prestakuntza-ekintzak eta erakundeak indartzekoak definitzeko.

Gainera, ebaluatu egingo da bai genero-ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako egungo tresna (GBA) eta bai horrek genero-politika instituzionalizatzeko prozesuak hasteko laguntza jaso duten erakundeetan izan duen inpaktua. Analisi horrek berrikusteko eta eguneratzeko elementuak eskainiko ditu.

Halaber, kudeaketa-sistemen hobekuntzatik abiatuta, agentziako teknikarien gaitasuna handitzea espero da batzorde mistoek babesten dituzten ekintzei, segimendu-bidaiei, jardueretako partaidetzari, ekimenetan laguntzen duten instituzioei eta abarri nabarmen laguntzeko.

### **c) Ordezkaritza-espazioak indartzea eta finkatzea: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea eta estatuko eta nazioarteko beste zenbait**

Euskal lankidetzaren deszentralizatuaren esku hartzeko estrategiak hitzartzeko aukera ematen duten ordezkaritza- eta koordinazio-espazioak finkatzearen alde egiten da. Plan honen esparruan, sailen arteko eta erakunde arteko politika publiko bat sustatu eta koordinatu nahi da eta, horretarako, dagoeneko sortuta dauden espazioak –Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea– bultzatuko dira eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren proaktibotasunerako espazio berriak ireki.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak, batzorde iraunkorraren partaidetza aktiboaren bidez, plan honen helburuak betetzeko agendak, mekanismoak eta taldeak

---

<sup>20</sup> 2012an dekretu-zirriborro bat jorratu zen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren esparruan. Dokumentu hori erabiltzen ari da behin betiko proposamena prestatzeko oinarri gisa.

zehaztuko ditu. Horien artean nabarmenduko dira euskal lankidetzaren bereizgarri buruzko hausnarketa, estrategia nagusiak sortzea, tresnak ebaluatzea eta politiken koherentziari eusteko agendaren segimendua.

Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordearen eta haren Talde Teknikoaren bitartez, eraginkor bihurtuko da Eusko Jaurlaritzaren, foru-erakundeen eta udalerrien – EUDELen eta Euskal Fondoaren bitartez- arteko koordinazioa. Batzorde horretan koordinazioa eta osagarritasuna areagotzeko ekintzak bultzatuko dira, euskal lankidetzaren kalitatea hobetzeko programazioari, jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, halaber, topagune eta koordinazio moduko foro eta sareetan parte hartuko du –, European eta nazioartean, horrek balio erantsia emango baitio lankidetzaren deszentralizatuari eta aukera emango baitu ekimen estrategikoekin artikulatzeko. Parte-hartze horren bidez bilatuko da euskal lankidetzako eragileei aukerak eskaintzea Europako eta nazioarteko beste bazkide batzuekin ekimen eta ekintza estrategikoetan parte hartzeko.

#### **d) Garapenerako politiken koherentziaren alde egitea**

2014-2017 aldirako III. Gida Planaren esparruan, erabakimenez egin nahi da garapenerako politiken koherentziaren alde. Hasteko, Eusko Jaurlaritzaren politiken koherentziari buruzko diagnostia egingo da. Horretan oinarrituta, plan honen aldirako ibilbide-orria zehatuko da. Lankidetzarako Garapeneraren Euskal Kontseiluak segimendu- eta kontrol-lanak egingo ditu, 158/2008 Dekretuaren 2.d artikuluari jarraiki.

#### **e) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea eta proaktibotasuna areagotzea**

Plan honen helburuetako bat Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan erreferentziako eragile estrategiko izatea da. Horretarako, garapenerako lankidetzaren politikak sortzeko eta kudeatzeko gaitasunak indartu behar zaizkio. Horretarako, apustu hau egingo da: (i) administrazioa modernizatzea, kudeaketa eraginkor eta efikazagoaren eta kalitateko laguntzaren alde; (ii) taldearen giza gaitasunak eta gaitasun teknikoak indartzea; (iii) plangintza-prozesuak eta kontuak ematekoak hobetzea; (iv) eta genero-ikuspegia zeharkako bihurtzea.

## **VI. TRESNAK ETA AURREKONTUA**

Lankidetzarako euskal politikaren helburuak lankidetzatresnen bitartez bihurtzen dira eraginkor. Kontuan izanik garapenaren munduko panoraman izan diren aldaketak, testuinguru desberdinek eta horien mailek –tokikoa, eskualdekoa eta nazioartekoa– planteatzen dituzten erronkak, eragile bakoitzak euskal lankidetzat publikoari ematen dion espezifikotasuna eta balioa, eta epe luzeko prozesuen alde egiteko bokazioa, beharrezkotzat jotzen da tresnen esparru orokorra berrikustea, lankidetzat-politikaren helburuak erdiesten laguntzen ari den baloratzeko.

Horregatik, 2014-2017 aldian sistematikoki berrikusiko dira egungo tresnak –analisi, azterketa eta ebaluazioen bidez–. Berrikuspen hori balio handikoa izango da euskal lankidetzaren ezaugarri espezifikoei buruzko gogoeta aberasteko. Gogoeta horren emaitzak, lankidetzako eragileekin, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, beste erakunde batzuekin eta hainbat aditurekin izandako elkarrizketetatik lor daitezkeen ikaskuntzekin batera, tresnei buruzko proposamen berrikusia eta berritua diseinatzeko erabiliko dira. Proposamen horren garapen juridikoa lau urteko gida-planaren hurrengo aldi zehaztuko da. Tresnak

analizatzeko eta diseinatzeko prozesua partaidetza bidez egingo da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren esparruan.

Horretarako, eta frogetan oinarritutako erabakiak hartzeko, honako ebaluazio hauek egitea aurreikusten da, betiere ebaluagarritasunaren arabera eta gogoeta- eta analisi-prozesuan sortzen diren beharrak kontuan hartuta egin litezkeen doikuntzen mende:

- (a) Ekitatearen aldeko antolakuntza-aldaketako tresna (GBA), inpaktuari eta eragileak indartzeari dagokionez zer-nolako irispidea duen jakiteko.
- (b) Proiektuen tresnaren hezkuntza formaleko proiektuak (PRO – K3), haien irispidea ebaluatzeko eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekiko artikulazioa arakatzeko.
- (c) Herrialde-estrategiak (Kuba eta Guatemala, baita tresna bera ere), zer-nolako eraginkortasuna duten eta koordinazioa eta lurralde-inpaktuak indartzeko mekanismo onenak berriz pentsatzeko.
- (d) Proiektu kateatuen (PRO – K1) eta programen (PGM) arteko konparazioa, epe luzeko prozesuen inpaktua eta tresna bakoitzaren indarrak eta ahuleziak zein diren jakiteko.
- (e) Produkzio-garapeneko eta laguntza teknologikoko proiektuak (PRO – K2), tresnak laguntza teknikoko proiektuetan dituen indarrak eta mugak zehazteko.
- (f) Euskal lankidetzaren ibilbide luzeko prozesuen sistematizazioak eta/edo ebaluazioak, eta/edo haren ezaugarri espezifikoaren arabera egindakoak, ikaskuntzak lortzeko eta babesa eman zaien ekintzek planteatutako helburuak erdiesten zenbateraino laguntzen duten aztertzeke.

2014-2017 aldian, adierazitako berrikuspenera egiten den bitartean, egungo lankidetzatresnek indarrean jarraituko dute –ikus 16. taula, VI.3 atalean-. Egungo araudian aldaketa puntualak egitea aurreikusten da –deialdiaren ebazpenak eta, kasuren batean, dekretu arautzailean–, gaur egun dauden tresnen eraginkortasuna hobetzeko.

Halaber, hitzarmenen tresnaren baldintza estrategikoak eta tekniko-administratiboak bilduko dituen dokumentu bat zehaztu eta sozializatu nahi da. Irizpide horiek definitu arte, 2008-2011 aldirako Garapenerako Lankidetzaren II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailearen IV.3. azpi-jarraibidean bildutako batera finantzatzeko hitzarmenen helburuak mantenduko dira.

## **VI.1. Aurrekontu-konpromisoak**

1/2007 Legeak, Garapenerako Lankidetzari buruzkoak, Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzarako zuzendu behar dituen baliabideak ezartzen ditu bigarren xedapen gehigarrian:

Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren % 0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arian-arian gehituko ditu garapen-lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren % 0,7 izan daitezzen.

Euskal Autonomia Erkidegoa ez dago munduko krisi ekonomikotik kanpo. Egoera horrek premiazko austeritate-neurriak ekarri dituen arren, Eusko Jaurlaritzak berriro egiten du garapenerako lankidetzaren aldeko apustua eta munduko egiturazko pobrezia eta desberdintasunaren aurkako borrokan hartu duen konpromiso etikoa eta politikoa. Hala, 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren aldirako, honako aurrekontu-konpromiso hauek hartzen ditu:

#### 14. taula: 2014-2017 aldirako aurrekontu-konpromisoak

2014	2015	2016	2017
35.026.830 €	40.000.000 €	50.000.000 €	55.000.000 €

*Iturria: Garapenerako lankidetzaren 2014-2017 aldirako plangintza estrategikoaren orientabide orokorrak.*

2017. urterako, termino absolutuetan hitz emandako kopurua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren % 0,53 baino txikiagoa bada, ehuneko hori aplikatzearen emaitzazko zenbatekoa hartuko da erreferentziazat.

Urtero esleitzen den aurrekontu-hornidura globala deialdi berriak finantzatzeko eta aurrekontu-urte horri esleitutako aurreko urteetako ordainketak egiteko erabiliko dela ziurtatzeko, aurrekontua betearaztearen jarraipena egiteko mekanismorik egokienak garatuko dira.

## VI.2. Ekintza positiboak eta mugak

Plan honek desberdintasun-egoerak edo aukerak pareko egiteko estrategiak biltzen ditu:

- Aldi honetan, Afrikako lana bultzatzen jarraitzea, 2017. urtean banatuko diren funtsen gutxienez % 25, Afrikako kontinentean gauzatzen diren ekimenetara zuzentzeko.
- Bana daitezkeen funtsen % 20, gutxienez, emakumeak ahalduz lehentasunezko helburutzat duten ekimenetara zuzentzea. Ehuneko horretan, tokiko bazkide gisa erakunde feministak dituzten proposamenetarako % 5 ere sartu da.
- Urtean erakunde bakar bati ematen zaion guztizko kopurua gehienez ere urte horretan bana daitezkeen funts guztien % 7ra mugatzea. Muga hori urte bakoitzaren hasieran jakinaraziko da, aurrekontua Eusko Legebiltzarrean eta bana daitezkeen

funtsen proposamena Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Kontseiluan onartu ondoren.

- Agentziaren beraren kudeaketa-kostu administratiboak ELGaren Garapenean Laguntzeko Batzordeak baimendutako terminoetan sartzea aurrekontuan, % 5eko gehieneko mugarekin.

### VI.3. Urtean bana daitezkeen funtsen aurrekontu-zenbatespena, lankidetzaren modalitateen eta tresnen arabera

Aurreko atalean azaldu denez, egungo tresnak plan honek iraun bitartean egongo dira indarrean. Ondoren, bakoitzari urtero bideratu beharreko baliabideak eta funtsen portzentajea zehaztu da.

15. taula: Tresnak eta bana daitezkeen funtsak

TRESNAK			
HERRIALDE BAZKIDEEKIKO LANKIDETZA	GARAPENERAKO LANKIDETZA	PRO (K1 eta K2)	% 40-55
	EKINTZA HUMANITARIOA	PGM	% 20-30
		EHE PRE	% 8-12
GIZARTE ERALDAKETARAKO EKINTZAK/PROZESUAK	ERAGIN POLITIKOA; BERRIKUNTZA ETA SORMEN METODOLOGIKOA; IKERKETA; PRESTAKUNTZA; ETA KOMUNIKAZIOA, TRUKE ETA IKASKETA KOLEKTIBOA	PRO (K3)	% 8-12
ERAGILEAK INDARTZEA	GENERO EKITATEAREN ALDEKO ANTOLAKUNTZA ALDAKETA	GBA	% 0,3-1
	BORONDATEZKO LANKIDEAK	KOP	% 0,3-1
	NBE-REN PRESTAKUNTZA BEKAK	NBE	% 0,5-2
	GAZTEAK ESPEZIALIZATZEKO BEKAK	BEK	% 0,2-0,3
ZUZENEKO LANKIDETZA	ZUZENEKO LANKIDETZAKO HITZARMENAK	ZUZ	% 6-10
BESTE ZENBAIT SENTSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE EKINTZA	BORONDATEZKO EUSKAL LANKIDE GAZTEAK	JVC	% 0,2-0,7
	IGNACIO ELLACURÍA SARIA	SAR	

Iturria: Geuk sortua.

## VII. EBALUAZIOA, LANKIDETZA POLITIKAREN FUNTSEZKO ARDATZ

Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen, otsailaren 22koaren, 13. artikulua adierazten duenez, garapenerako lankidetzako eskumenak dituen sailari dagokio programak, ekimenak, urteko planak eta urte anitzeko planak kudeatzea, koordinatzea eta ebaluatzea. Geroztik, ekainaren 19ko 5/2008 Legeak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duenak, ezartzen du haren helburu eta eginkizunen artean dagoela lankidetzako politika publikoaren eta haren eraginaren urteko ebaluazioak egitea, baita politika horren ekintzen eta tresnena ere.

Bestalde, 1/2007 Legearen arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren eskumena izango da Txostena egitea, alde zuzenetik eta nahitaez, urte anitzeko eta urteko planen proposamenei buruz eta plan horien ebaluazioei buruz (16.3.c artikulua). Legearen 26. artikulua ezartzen duenez, gainera, Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzaren tresnak eta planak ebaluatuko ditu aldika-aldika, tresna eta plan horien helburuak nola bete diren neurtze aldera. Era berean, garapenerako lankidetzaren politika publikoa kanpotik ebaluatu dadila erabaki dezake, lankidetzaren eragina ezagutu eta hobetze aldera.

### VII.1. Lankidetzarako euskal politika ebaluatzeko mekanismoak

2014-2017 aldirako III. Gida Planak 1/2007 Legean azaldutako lankidetzaren politikaren elementu nagusiak zehazten ditu, eta ebaluazioa osagai nagusitzak hartu behar du, maila estrategikoan, politikoan, operatiboan eta instrumentalean baloratu ahal izateko.

I. eranskinean *plangintza eta segimendu matrizea* erantsi da, eta horrek plan honen lau helburu estrategikoak jasotzen ditu, adierazle, emaitza, ekintzen proposamen eta kronogramekin. Planaren ildo estrategikoak urteko planetan mugatutako ekintza espezifikoetan, pertsona arduradunetan eta denboretan zehaztuko dira. 2015. urteko lehen seihilekoan ariketa bat egingo da ezarritako adierazle bakoitzerako oinarritzako ildoak eta jomuga zehatzak ezartzeko.

Planaren Segimendua eta ebaluazioa bi mailatan egingo da:

## **Politika publikoaren diseinuaren eta irispidearen ebaluazioa**

Ebaluazioa, aldez aurretik ezarritako irizpideetan oinarritutako zeharkako gogoeta- eta balorazio-ekintza gisa ulertua, hala 2014-2017 aldirako III. Gida Planaren beraren definizioari eta diseinuari, nola haren kudeaketari eta arrakasta nagusien lorpenari aplikatuko zaio. Plan hau diseinatzeko prozesu parte-hartzailearen eta 2008-2011 aldirako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzailea ebaluatzeko aurreko prozesuaren ildoari jarraiki, euskal eragileek eta horien tokiko bazkideek ebaluazio-prozesuan parte hartzea ahalbidetuko duten mekanismoak ezarriko dira.

Horretarako, ebaluazio-matrize bat diseinatuko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak lehenetsitako irizpide, kategoria eta adierazleekin, lankidetzarako euskal politikaren lorpenak baloratzeko erreferente komun bat erabilgarri egon dadin.

Plan honen ebaluaziotik eratorriko diren ondorioak, gomendioak eta ikaskuntzak –ebaluazioa Plana gauzatzen den azken urtean egingo da- hurrengo aldiaren plangintza parte-hartzailean kontuan hartuko dira.

## **Politika publikoaren urteko jarraipena**

2014-2017 aldirako III. Gida Planeko helburuak eta emaitzak urteko planetan bilduko dira , agentziaren ohiko jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren ildoekin batera. Hala, urteko memoriak urteko planaren betetze-mailaren berri emango du, baita planaren adierazle eta emaitzak lortzen zenbateraino lagundu duen adierazi ere.

Prozesu horretarako mekanismoak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza Kontseiluaren esparruan artikulatuko dira, bere egutegian ezarriko baititu plangintza onartzeko zein plangintza horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko behar diren bilkurak. Euskal eragileek, bestalde, urteko plangintza-prozesuan eta jarraipenean parte hartuko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren bitartez.

## **VII.2. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatutako ebaluazioen plangintza estrategikoa**

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, politika publikoak hobetzeko tresna bat da ebaluazioa. Hala, hemen aurkeztzen den proposamenak asmo edo xede hauek ditu: (i) informazio garrantzitsua sortzea erabakiak hartzeko lankidetz-politika publikoa definitzean, kudeaketa-sistemak hobetzean eta baliabideak esleitzean; (ii) lagundutako esku-hartzeak hobeto ulertzea, ikaskuntzak lortzea eta jakintza sortzea; eta (iii) erdietsi diren lorpenak eta baliabideen erabilera analizatzea.

